



Herriko bestak
Berroetan → 35

LESAKA → 12
Arrano elkarteak 25.
urteurrena ospatuko du

LEITZA → 32
XXXV. Kultur Aroa
ekainaren 9ra arte

BAZTAN → 36
Nafarroako Bertso
Eskolen Eguna Elizondon

SENPERE → 42
Izen ofiziala 'Senpere'
izateko sinadura bilketa

Mikel BEZUNARTEA | Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteko teknikaria

«Leitza, Baztan eta Bortzirietako Udalek bere gain hartu dute zerbitzuaren gastu guztia»

Nafarroako Gobernu Kontsumo Zerbitzuak orain arte ematen zuen diru-laguntza kendu ondotik hartu dute erabaki hori. Aldiz, Malerrekako Mankomunitatearekin bertzelako hitzarmena sinatu du iratxek: gastuaren erdia Mankomunitateak ordainduko du eta bertze erdia Iratxek. → 30



Egun osoko ospakizunaren bitartez, Malerrekako Mankomunitatean dauden 13 herrien arteko elkartasun ideia zabaldu nahi dute jendearen artean

ERREPORTAJEA → 4-5

ZUBIETAn, maiatzaren 26an

Malerrekako Eguna elkarlana besta giroan goraipatzeko



Pantxo ETXEBERE eta Mikel MUJIKA

Pottoka & Eskortz

Berriki argitaratu dute beraien lehen diskoa eta gustora daude emaitzarekin: «Kanta lasaiak dira, soinu garbia dute eta folk estilo aldera jotzen dute». Diskoa Xorroxinen dago salgai.

ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

ELKARRIZKETA → 3

ZOKKETAK → 51



Txartela egiteko
deitu 948 63 54 58ra

ANTZERKI EMANALDIA BERAN

Gure bide galduak

Dejabu taldea



Eguna:
maiatzak 19
larunbata

Ordua:
22:00ak

Tokia:
Berako Kultur
Etxean

Sarrerak:
6€

- Aitzinetik Errekalde ostatuan salgai
- Egun berean Kultur Etxean 21:30etik aitzinera

2 LAGUNENTZAT BINA SARRERA OPARI
telefono honetara deituta: 948 634 125
maiatzaren 18ko 13:00ak baino lehen



ttipi txartela

harpidetza baino merkeagoa da



+

ttipi-ttapa aldirikaria doan
42 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa izugarriak

40euro

10euro

30euro

-25eko deskontuak
errentaren
atzerapena

TTIPI-TTAPAren utetako kuotak 21 euro bako da.
TTIPI TXARTELA duzuek, 30 euro pagatuko duite urteraren zikloan.
 Errentaren Atzerapenaren 10 euro izudiko bultzale

AUTO: eta **BIZIKLETA** Indarrak / Berruzti / Dabiztey / Estren-Bike / Sarrailera / Zuzen Motor
AUTO ESKOLAK: Sempin **ARGAZKI-DENDAK**: Ayta / Doko / Mena / Zidua
ARROPA-DENDAK: Bekubi / Eduena / Espalika / Ipingi / Juan J. Pukolan / Kattolingoiti / Kutsala
BITXI-DENDAK: Euzara **ESTETIKA ZENTRUAK**: Annala / Arriola **ETXETRESNAK**: Alcega
HAIRREN GAUZEN DENDAK: Profeta **JATEXEA**: Piztako Ota / (Euzara) Piztako
KINOLDEGIAK: L. ezalako (Ota) Piztako **KIROL-DENDAK**: Agara / Izarta / Zola
LENTZENAK: Kattolingoiti / Maritxu **LIBURU-DENDAK**: Indarrena / Mamen
NUTRIZIA eta **DIETETIKA**: Ota / Kizeta / Erika **OPARI-DENDAK**: Alcega
OPTIKAK: Izarta / Dabiztey **PENTSUAK**: Mena **TINDOTEGIAK**: Juan
ZAPATA-DENDAK: Ota / T. ezalako

Zaletasun soiletik haratago, badu Baztanek zerbait berezia musikarekin. Musika talde aunitz sortu dira Baztanen eta horietan azkena Pantxo Etxebere *Pottoka* eta Mikel Mujika

Eskortz amaiurtarren lana da: *Pottoka & Eskortz* diskoa. Ez da *Pottokaren* lehenbizikoa, aspalditik baitabil mundu honetan. Bai, ordea, Mujikarena. Egindako lanarekin kontent, duela

hiruzpalau aste bortz kantako lana argitaratu zuten, eta dagoeneko aurkeztu ere egin dute, apirilaren 20an Andoainen. Diskoak Xorroxin Irratian paratu dituzte salgai.

Pantxo ETXEBERE eta Mikel MUJIKA | *Pottoka & Eskortz* taldeko musikariak

«Euskaraz egindako musikatik bizitzea kasik ez da erreala»

G. PIKABEA | AMAIUR

Noiz eta nola sortu da taldea?

Gan den urtetik elkarrekin gabiltza. Biak gelditu eta kantak ahal bezain ongi prestatzen hasi ginen. Gerora, grabatzeko momentua etorri zen eta horretan ibili gara. Duela hiruzpalau aste argitaratu genuen diskoa eta esperientzia polita izan da. *Pottokak* gitarraro eta kantatu egiten du eta Mikelek gitarra, banjoa eta kantaren batean armonika eta ahots batzuk sartu. Diskoan, ahotserako Beñardo beratarra eta Morau hernaniarra ere fitxatu genituen.

Zer aurkituko dugu diskoan?

Nahiko kanta lasaiak dira, soinu garbia dute eta folk estilo aldera jotzen dute. Bortz kanta dira eta bakoitzean gai bat lantzen da. Lehenbizikoa *Nafarroaren Eguna* da, Baigorri Nafarroaren Eguna egitean, Amaiurtik oinez joateko ohitura genuen eta egun horri buruz eginiko kanta da. Bigarrena *San Jose lorea* da, udaberrian lehenbizi sortzen den loreari eskainia. *Lagabetu*en *filosofiak* kantatzen, lanik gabe zaudean zer pentsatzen duzun kontatzen da, dramarik egin gabe, ironiarekin. *Bake Pipa* kantaren tabakoaren legez ari



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pantxo Etxebere eta Mikel Mujika amaiurtarrek osatzen dute *Pottoka & Eskortz* taldea.

gara. Gu ohitu garen inguruko jendea beti erretzailea izan da, ostatu eta elkarteetan orain arte erretzen zen. Baina legeak aldatu dira eta kanta horrek debekatu aitzineko giro hura zein polita zen aipatzen du. Eta *Mohawe hotela* kanta da hondarrekoa. Eskualdun artzainak Ipar Ameriketara joaten zirenean, Kaliforniako *Mohawe* desertura joaten ziren, eta han ez zuten deus ere izaten, dena txar batean lo egiten zuten eta izarren azpian. Eta kanta honetan konparazio bat egiten da, *Mohawe* ez baita hote-

HELBURUA

«Gutierrez ongi pasatu nahi dugu eta jendeak ere ongi pasatzen badu, ezin dugu gehiago eskatu. Jendeak zure musikarekin disfrutatzeko duela ikustea sentsazio polita da».

MUSIKATIK BIZI?

«Euskal Herria tikiak da eta musikatik bizitzea lauzpabortz taldek lortu dute. Eta bertzelan, gu bezalako filosofiarekin hartzen ahal da, bertze zerbaitetik bizi eta musika afizio bezala hartuta».

la, desertua baizik.

Non ekoitzi duzue diskoa?

Zizur Nagusiko MAV estudioetan grabatu, nahasi eta masterizatu dugu, Miguel Aizpunteknikoarekin. Bertze estilo batzuetako musikarekin ohitua dago [KOMArekin lan egin du] baina gustura egon da gurekin eta lan polita egin du. Disko arrunta da, askatasunez egin eta alde horretatik, disko freskoa gelditu da. Arras kontent gaude.

Zer transmititu nahi duzue zuen musikarekin?

Gutierrez ongi pasatu nahi dugu eta jendeak

ere ongi pasatzen badu, ezin dugu gehiago eskatu. Jendeak zure musikarekin disfrutatzeko duela ikustea sentsazio polita da.

Nola ikusten duzue taldearen etorkizuna?

Pausuz pausu joanen gara. Oraingoan, 500 disko atera ditugu eta salduko direnaren itxaropena dugu, baina denborarekin, ez dugu presarik. Norbaitek erosi nahi badu, Xorroxin Irratian paratu ditugu salgai eta kontzertuak emateko ere prest gaude.

Zein egoeratan ikusten duzue euskal musika?

Nondik begiratzen duzun, horren arabera da. Alderdi profesionaltik begiratzen baduzu, hortik bizitzea ezinezkoa da. Euskal Herria tikiak da eta musikatik bizitzea lauzpabortz taldek lortu dute. Musikatik eta gainera euskaraz egindako musikatik bizitzea kasik ez da erreala. Eta bertzelan, gu bezalako filosofiarekin hartzen ahal da, bertze zerbaitetik bizi eta musika afizio bezala hartuta. Halere, zein formatutan mugitzen zaren ere ikusi behar da. Gure formatuan, ostatu tikietan ibiltzen gara eta horrelako zerbait bideragarria izan daiteke, baina zerbait haundiagoan sartzea gaur egun zaila da.

OSPAKIZUNAK → MALERREKA ETA BERTIZARANA

Malerrekako Eguna egingen da lehen aldiz maiatzaren 26an Zubietan

Malerrekako Mankomunitatean dauden 13 udalerrietako herritarren topaleku izan nahi du

Malerrekako herritarrei aisialdirako aukera eskaini bidenabar, Malerrekako herriak ezagutarazi nahi dira hilaren 26ko bestarekin, baita Male-

rekako identitate komuna landu eta Mankomunitatearen berri eman ere. Horren harira, egun osoko egitaraua prestatu du Mankomunitateak.

G. PIKABEA

Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldias, Sunbilla, Urroz eta Zubietan. Guztira 5.700 biztanle baino gehiago dituzten hamahiru udalerri hauek osatzen dute Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea. Urteak daramatza lanean Mankomunitateak, baina aurrean lehenbizikoz, Malerrekako Eguna antolatu dute. Hilaren 26an izanen da, Zubietan.

Lau dira Malerrekako Eguna antolatzearen helburuak eta horien berri Jon Etxague Mankomunitateko kudeatzaileak eman dizkigu: «alde batek, Malerrekako herritarrendako aisialdirako eta ongi pasatzeko egun bat antolatu nahi izan da; bigarrenik, Malerrekako herriak ezagutarazi eta promozionatu nahi dira; hirugarrenik, Malerrekako identitate komuna landu nahi da. *Komarka* egin, loturak sustatu. Malerrekako herritarren arteko adiskidetasuna handitu nahi da. Denak zonalde berdineko partaide sentitzen bagara, ondoko herrikoarekin identifikatzen bagara, elkarlana errazago izanen da. Eta azkenik, Mankomunitateak ezagutarazi nahi da, erakundearen presentzia nabarmendu eta Mankomunitatea osatzen duten

herriak Mankomunitateko partaide sentiarazi».

Elkarlanaren ideia da Etxaguek azpimarratu digun bertze puntua. Bere irudiko, «zonaldearen garapena lortu nahi bada, kalitateko zerbitzu publikoak eskaini, herritarren bizi kalitatea hazi eta beharrak ase nahi badira, herri guztien elkarlanabeharrezkoa da. Mankomunitateak elkarlan hau ahalbidetu eta kanalizatzeko tresna izan behar du». Herriak elkarrekin lan egitea «batzuetan zaila» dela uste du, «maiz interes desberdinak dituzte, herri guztiak ez direlako berdinak: kokapenagatik, biztanle kopuruagatik, garapen ekonomikoagatik...». Halere, gaineratu digu, «azken boladan elkarlana eta kooperazioa gailentzen ari direla. Krisi garaian eskualdea indartu eta bizi kalitatea mantendu nahi bada, herriek diferentziak alde batera utzi eta elkarrekin lan egin beharko dute».

ORAIN ARTEKO IBILBIDEA

80. hamarkadan, hiri hondakinen kudeaketaz arduratzeko Malda-Errekako Mankomunitatea sortu zen. Eta hamarkada horren bukaeran, oinarriko gizarte zerbitzuek eta euskaraz ere arduratzen hasi zen. Zabalte horri forma juridiko egoia emateko, 1993ko uztailean, Malerrekako eta

Bertizaranako udalen adostasunari esker, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea sortu zen. Hasiera hartan, hiri hondakinen bilketa eta tratamendua, euskararen promozioa eta oinarriko gizarte zerbitzuen inguruan aritu zen lanean eta 1996 aldera, Pisu Tutelatuak eraiki ziren Donezteben eta horien kudeaketa ere bere gain hartu zuen. 2008an, berriz,

ere badabil Mankomunitatea eta asteen bitan Cedernako teknikaria Mankomunitatean izaten da. Baina hortik haratago, «Malerrekako eskualdea osatzen duten udal guztiendako topagune bat eskaintzea da helburu nagusia», dio Etxaguek, «elkarlanean aritzeko eta herri guztiei eragiten dieten arazoei konponbideak bilatzeko».

Asanblada da Mankomunitateko organo gorena eta herri bakoitzak ordezkari bat du hor. Asanbladak izendatua da lehendakaria eta bera da Mankomunitatearen zu-

zendaria eta gai gehiengutan azken hitza duena. Gaur egun, Alberto San Migel Oizko alkatea da go karguan, eta aitzineatik Migel Angel Petrirena Iturenko alkate zena eta hiru agintalditan Migel San Migel Doneztebeko alkatea izan ziren.

Mankomunitatearen lan esparru bakoitzeko batzorde bat ere badago: Gizarte Zerbitzuena, Hondakinena, Urarena, Garapenarena eta Euskararena. Eta langileei dagokie –dozena bat– organoen erabakiak martxan paratu eta Mankomunitateak funtzionaraztea.


ELKARLANA

«Eskualdea indartu eta bizi kalitatea mantendu nahi bada, herriek diferentziak alde batera utzi eta elkarrekin lan egin beharko dute»

Jon ETXAGUE

Mankomunitateko kudeatzailea

Aurtitzen ura edangarri egiteko planta eraiki eta Doneztebe, Sunbilla, Elgorriaga, Ituren eta Zubietari uraren goi-hornidura zerbitzua ematen hasi zen. Hala, gaur egun, hiri hondakinen bilketa eta tratamendua, ingurumenaren babesa, euskararen promozioa, oinarriko gizarte zerbitzua eta aipatu herrietako uraren zerbitzua dira Mankomunitatearen lan eremuak. Doneztebeko hogeipi pisu sozialen alokairua ere kudeatzen du. Cederna Galarur elkartearekin garapena sustatzeko lanean



MALERREKAKO MANKOMUNITATEA → 13 UDALERRI

Herrietako alkateek nola ikusten dute Malerreka?

Horixe galdetu diegu Malerrekako Mankomunitatearen barne dauden hamahiru udalerrietako alkateei



BEINTZA-LABAIEN

«Mankomunitatea gauza askotarako behar da, baina herriek ezin dute nortasuna galdu. Herri bakoitzak bere aldera tiratzeko norberak egin behar du indarra»

Patxi OTXANDORENA



BERTIZARANA

«Arlo guztietan bilatu behar dugu adostasuna eta nahia-go nuke denetan hala balitz eta herri bakoitzean denentzat aberasgarria den proposamenen bat eginen balitz»

Antonio ERREGERENA



DONAMARIA

«Tratua ondoko herriekin dugu, baina herriak hain dira tikiak, Mankomunitaterik gabe, ematen dituen zerbitzuak norbere gain hartzea ezinezkoa litzatekeela»

Mikel ARREGI



DONEZTEBE

«Udalen artean dugun harremana normala da eta Mankomunitatean eskaintzen ditugun zerbitzuak hobetzeko lan egin behar dugu»

Migel SAN MIGEL



ELGORRIAGA

«Nire aita Doneztebekoa, ama Aurtizkoa, atagarroa Elgorriagakoa eta amagarroa Sunbillakoa. Niretzat Malerreka familia eder bat da»

Jose Ignazio OLAZAR



ERATSUN

«Udalexera sartu berriak gara, baina oraingoz pozik gaude Mankomunitatearen lanarekin. Elkartzea eta beste herriekin harremana sortzea gauza ona da»

Francisco Mari RETEGI



EZKURRA

«Gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen ditu Mankomunitateak eta kontent gaude. Festa antolatzea ere ongi ikusten dugu eta ahal dugun moduan lagunduko dugu»


Julian GOGORZA



ITUREN

«Malerreka nahiko hila dago eta elkartu eta gauzak egiteko beharra badago. Herri bakoitzak bere arazoak ditu baina uste baino gehiago egin dezakegu elkarrekin»

Marijose BERAU



OIZ

«Herri bakoitzak berea egiten du eta Mankomunitatea da elkartzen gaituena. Herri tikiak garez, zenbait zerbitzu eskaintzeko modu bakarra elkartzea da»

Alberto SAN MIGEL



SALDIAS

«Mankomunitatearen hasierako helburuekin zerikusirik ez duen muntaia egin da eta herri txikiek ezin diete gastuei aurre egin. Ekonomia ikusita, festa soberan dago»

Jacinto DOMINGEZ



SUNBILLA

«Malerrekako parte izatearen sentimenduan, herri tikiak bereziak sentitzen dira. Hor oraindik lan aunitz egin behar dugu elkarrekin aitzinera segitzeko»

Ametz INDA



URROZ

«Herri bakoitzak ahal duen moduan salbatzen du bere bizkarra eta bestagatik berdin segituko dute, baina behintzat, herrien artean harreman zuzenagoa lortuko da»

Inaxio URROZ



ZUBIETA

«Gero eta gastu gehiago heldu zaizkigu herri tikioki eta nahiko estu ibili beharko dugu. Elkartuta gauza asko aiseago edo hobeki-xeago egiten ahal dira»

Patxiku MITXELENA



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Eliza berria

Jendea negarrez marrumaka, sutan, oiuhu eta garrasi burrunban bere onetik ateria, elkar joka, edo pozez eroturik, espantu batean elkar besarkatzen, sinesten duen erlijioagatik. Zer du kirol sakratu horrek XX. eta XXI. mendeetako fededun gehien elkartzeko, ideia politiko, gizarte maila, arraza, adin eta erlijio guztietako jendea horren sutsu harrotzeko, dirua gastarazteko, min eta buru-hauste guztiak ahanzarazteko eta bekatu guztiak garbitzeko? Jokalari sainduenak hezur-haragizko jainko berriak dira, Katedral izeneko elizetan jokatzen dute eta zerura begiratuz aitaren egiten duten milioiudun *Messiak* eta *Cristianoak* dira. Ez dago krisirik, ez langabeziarik, ez pobreziarik, fede hori deseginen duenik. Hedabideak, fede salbatzailea bazter guztietara zabaltzen duten misiolariak dira, sinestunen bizkar negoziua gizendu eta gizendu. Egin dezagun otoitz eta eska diezaiogun baloiari.

«Ez dago krisirik, ez langabeziarik, ez pobreziarik, fede hori deseginen duenik»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Munduaren xilkoa

Europako herrialdeak ezagutzen ez dituztela eta hista egiten zaie aunitan estatubatuarrei. Munduaren xilkoa direla uste omen dute. Eta gutako zenbatek kokatuko luke Ohio edo Idaho mapa batean? Europa zaharretik mugitu gabe, non daude Armenia edo Azerbaijan? Hurbilago oraindik, nor ailegatuko litzateke Urdiñarbera mapa edo GPS gabe? Non dugu zilborra?

Nabarmentzekoak



Guillermo NAGORE
Alzheimerrez kontzientziatuz

Galiziako Finisterretik Jerusalemara bidea oinez egiten ari da, Alzheimerren inguruan kontzientziatzeko. Maiatzaren 4 eta 5ean gurean izan zen eta Beran solasaldia eskaini zuen.



Kuki GONZALEZ
Baztan Futbol Taldeak ohore

Baztan Futbol Taldeak omenaldia eskaini zion, hainbat urtez taldearen alde egindako lana eskertzeko, talde nagusiak azken partida irabazi eta kategoria mantendu zuen egunean.



Jon JAUNARENA
Profesionaleko lehen txapela

Eskuz binakako promozio txapelketa irabazi du aurrelari leitzarrak, Ceciliorekin bikote eginez. Olazabal aresoarrari eta Larrinagarai 22-14 irabazi zieten apirilaren 28ko finalean.

Atzera begira → 2002.05.23 / TTIPI-TTAPA 326. zbk



Doneztebeko Udal Musika Eskola inauguratu zuten orain 10 urte

Lehenago liburutegia zen lekuan inauguratu zuten Doneztebeko udal musika eskola berria, 2002ko ekainaren 16an. Aitzinetik, lehen aldiz, Esku Soinuaren Asteburua ere antolatu zuten herriko akordeolariek. Urte hartan 127 ikasle zituen Doneztebeko Musika Eskolak. Garbiñe Leitza piano irakasleak aipatu zigunez, musika eskolaren sorrerari buruzko data zehatzik ez zuen, baina «inguru honetako apezak hasi ziren, eguerditan eskoletan solfeo erakusten». Gero, «duela hogeita urte inguru sortu zen musika eskola, Iruñeko irakasle batzuk kontratatu zituzten eta bizpahiru instrumenturekin hasi ziren arratsaldetan».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Denok gara biktimak?

Ainara MAIA URROZ

Euskaldunok: Zer moduz zabiltzate? Ni pixka bat ahul nabil bihotzetik, baina esperantza amini bat oraindik, haizea txistuka dabilkit, eta iratzartzen ari da hartza, udaberriaz goza dezagun amodioz beterik.

Denok hartzen dugu min eta denok eman. Denok nahi dugu maitasuna eta batez ere zoriontasuna.

Baina nor da, zer da «denok»? subjektu abstraktu hori zehaztearren, taldeetan banatzen gara, koardilatan, alderdi politikoe-tan, sindikatuetan, gastronomia-elkarteetan, AVTn, ETXERATen, eta abarretan.

Ni, ordea, inoiz ez naiz inongo taldetan inoiz sartu, ez dut inoiz koadrilarik izan, ez dut kale-borrokatan barrikadarik egin...; bakarrik gelditu naiz. Bakarturik. Bakarrik egoteagatik zorionsuagoa naizela pentsatzen duzue? Ez dudala minik egin eta jaso? Zuek uste duzue barkadade hau hautatu dudala libreki?

Ezin da orain aitzakiarik erabili. Ez da inoren errua, errurik bada. Ez dago irabazlerik ez eta galtzaile-rik ere. Ezin dugu orain aitzakia merkerik eta koldarkeriarik erabili politikaz ez hitz egiteko, elkarrizketa ukatzeko, «biktima» etiketa ofiziala izateagatik barkamena exigituz ibiltzeko. Barkamena eskatu behar dela edozein harremanetarako abiapuntu gisa?

Barkamena ezin da exigitu, ezta erakunde armatu edo terrorista bati ere, inori; barkamena eman egiten da eskatu gabe, barkatzen da eta kitto! Bihotzak hala eskatuz gero, noski...

Izan ere, ni ere biktima naiz (eta beharbada berdugo ere bai, maitasunezko hitzak idazteagatik, maitasunezko eskutitzak idazteagatik), biktima naiz, zu bezala agian, min dudalako bihotzean, zauriak haragian, negarra begian; eta irribarre zintzoa ahoan, nik ere nire bihotzeko lagunari dena barkatzen diodalarik ezer eskatu gabe, lagun minari ez baitzaio ezer eskatzen. Nik dena barkatu diot, bere hitz itsusiak, eta dena, hark niri dena barkatu didan bezalaxe.

Egin behar dugu aurrera, orain baitugu garaia askatzeko, EUSKALDUNOK, baditugulako hamai-ka arrazoi independentziarako!

Bitartean heldu eskutik, arren, maitasunez, izan gaitezen zoriontsu bihotz-bihotzez.

«Ez da inoren errua, errurik bada. Ez dago irabazlerik ezta galtzailerik ere. Ezin dugu orain aitzakia merkerik eta koldarkeriarik erabili politikaz ez hitz egiteko, elkarrizketa ukatzeko, 'biktima' etiketa ofiziala izateagatik barkamena exigituz ibiltzeko»

Amek denbora eskatzen dute

Tere SAEZ (Berdintasun teknikaria)

Eta ez nau harritzen. Izan ere, krisiaren ondorioz askoz gizon gehiago langabezian eta denborarekin, badaude ere, amek bakarrik 39 minutu libre izaten dituzte, Europako banaz bertzetik beheiti (48 minutu) eta denbora hori ez diote bere buruari eskaintzen, seme-alabekin edo bertze senideekin egoteari baizik. Emakumeek banaz bertze 4 ordu eta 29 minutu eskaintzen dizkio-te etxeko lanei eta familiari eta gizezkoek 2 ordu eta 32 minutu. 14 urtez beheitiko seme-alabak zaindu ahal izateko denbora bateko lanak dituzten pertsonen %97,3 emakumeak dira.

Mundu honetan amek egiten dute paper soziala errekonozitu behar da, baina gizarteak beharrezkoa duen lan bat bezala, baloratua, konputatua (gaur egun, inaktiboen kategorian daude) eta batez ere, gizaki eta jendarte guztia- ren artean banatua. Zaintzearen funtzioa, inork ez beza- la egiten du emakumeak, ez bakarrik berak sortzen ditue- lako haurrak mundura, baita eta bereziki, jendarteak ho- rrela izan behar dela pentsa- tzen eta adierazten duelako. Zaintzearen paper hori eman digute, emakumearen zerbait naturala eta berezkoa balitz bezala, errealitatean ikasi eta eraiki egiten denean, baina gizezkoek ez zaie erakus- ten eta ez zaie eskatzen. Interesgarriena, aitak eta amak, biek zaintza banatzea izanen litzateke, eskema eta au- rreiritzirik gabe.

Zorionez, ama bakarra bada ere, klase aunitzetakoak ba- dira eta hori da interesgarriena. Emakume eta ama ere- du ugari daude eta posible da emakumean pentsatzea nahitaez amarekin lotu gabe. Honela, badira etxe barne- an eta etxetik kanpo lanean aritzen direnak (gehienak), eta noski, leher eginik bukatzen dute eguna. Badira ki- rol egitea gustatzen zaienak, irakurtzea, landareak zain- tzea, sukaldean aritzea, txapuzak egitea. Badira haurrak gogoko dituztenak, baina kontziente dira ezin dutela eta ez dutela Jainkoak ematen dizkien guztiak izan behar edo bere desioa atzeratu behar dutenak, gizarteak ez baitie familia eta lana uztartzeko behar diren neurriak eskaintzen. Badira seme-alabak zaintzeko lana pozik egi- ten dutenak, lan hori gizon eta emakumeen artean ba- natzea nahi dutenak eta ama izan nahi ez dutenak. Be- raien lana gogoko dutenak, bidaiatu nahi dutenak, bere denbora librea galdu nahi ez dutenak... Genero biolen- tziaren ondorioz, beraien seme-alaben bizitzatik desa- gertu diren amak ere badira zoritxarrez, urteko 80 ema- kume banaz bertze. Edo konfliktu politikoe-tan sufritu be- har izaten duten amak, seme-alabak ikusteko eta ondo- an izateko eskubidea ukatzen zaienak.

Beraiek izatearekin hutsa gatazkak leuntzen dituzten amak, kondiziorik gabeko maitasunarekin eta maite di- tuztenen sufimendua bukatzeko nahiarekin.

«Emakume eta ama eredu ugari daude eta posible da emakumean pentsatzea nahitaez amarekin lotu gabe»

Irakurleak mintzo

Elizaren
izenean dena
libre da?

Ines GEREKA (Zubieta)

Aspalditxotik Iruñeko Diozesa Nafarroako hainbat eta hainbat herriak elizak, ermitak, lurzati eta etxeak... bere izenean ari da ipintzen. Noski herritarrengandik izkutuan, inori deus esan gabe... isilpean!!

Dagoeneko batzuk salduak eta beste batzuk salgai, beraien 'arkoiak' azkar betetzen, 'parrokiano'ekin deus kontatu gabe, isilean eta gezurretan!!

Batzuk diote elizak ere eskubidea duela bere ondarea izateko. Bai noski, beste guztiok bezala. Baina nik zerbait nire izenean ipini nahi badut, nirea dela frogatu behar dut... edo ipintzen ahal dut herriko plaza nire izenean?

Gure zonaldeari dagoeneko, Oieregiko eta Donamariako apez etxeak saldu dituzte dagoeneko, beharbada gehiago ere bai.

Herritar askok ez daki bere guraso, ataxki edo arbasoek auzolanean edo beraien dirulaguntzaz egindako hainbat ermita, eliza, kanposantu... gaur egun Iruñeko Diozesiaren 'patrimonio'an daudela.

Hau da: lehen herritar edo 'parrokiano' guztiona zen ondarea, gaur egun Iruñeko Dioziesiarena dela... azken finean 'Vaticano'arena.

Nik nire herrikoaren berri emango dut:

Zubietan (gaztelaraz ipiniko dut erregistroan azaltzen den bezala):

- finca nº 1588: casa parroquial, inscrita por la Diócesis de Pamplona el 23-10-80

- finca nº 1589: cementerio antiguo, inscrita el 23-10-80

- finca nº 1590: huerto parroquial, inscrita el 23-10-80

- finca nº 1591: castañal en el paraje denominado Aldapa, inscrita el 23-10-80

- finca nº 1592: jardín parroquial, inscrita el 23-10-80

- finca nº 1902: templo parroquial, inscrita el 29-09-04


Ikusten duzuezen San Antón ermita ezik, beste guztia bere izenean dago. Eta gehienak orain dela 32 urte! Eliza edo 'temploa' bera ezik. Hau orain dela 8 urte. (1989an Aznarrek lege baten artikulua aldatu ondotik).

Lotsagarria eta injustua iruditzen zait. Laspurra haundi bat!

Hau dela eta, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma sortu zen eta dagoeneko Nafarroako 200 Udal baino gehiagok bertan parte hartzen dute (jakina, beste hainbat elkarte zein herritarrek ere bai).

Gaur egun Iruñeko Diozesa Nafarroako 'Agentzia Inmobiliario-rik' handiena bihurtu da.

Eta hau ez da bakarrik Nafarroan gertatu, estatu osoan ere bai, baina Nafarrokoa izugarria da... eskandalo-



Bota bertsoa
Alazne UNTXALO (Malerrekako bertso eskola) • Doinua: Habanera

Malerrekako Eguna

Maldan behera errekek jositako erresuma bereizgarria lurretan duen emankortasuna erreka harizti eta pago ugaritasuna biztanleok bizi dugun eskualde euskalduna 13 herrik osatzen dute bailara txukuna Zubieta dugu jo muga bertako herri kuttuna Maiatzak 26an hitzordu, ospakizuna... Lehen aldiz ospatuko da Malerrekaren eguna!

Eskualdeko eguna iristear dago jada. Mus txapelketan finala jokatu dute hara, talogileak nola ez eta baita paellada, bertsolariak kantuan tabernatik tabernara, herri-afaria ere nahi duenarentzat bada ta artisauek ikusgai joan ezkereraz plaza... zu irakurle maitea hurbil zaitez Zubitara ongi pasatuko dugu bertan elkartzeko bagara!

soa!

Plataformak argitaratutako liburuak argi uzten duen bezala: *Escandalo Monumental. En defensa de nuestro patrimonio, Edit. Altaffaylla.*

Gaur egun ere, elizak eta ermitak auzolanean konpontzen segitzen dute eta elizetan, oraindik ere, bere 'parrokianoei' diru eskatzen segitzen dute (diru eskasean omen daude).

Nafarroako Gobernuko diru laguntza publikoa jasotzen segitzen dute. Baina bestalde, ez dute beste guztiok egiten dugun bezala Udalaririk zergarik ordaintzen. Eta Nafarroako Gobernuari, Estatuari?

Erreforma fiskala dela eta, ez ote dio Barcinak edo Rajoik elizari diru eskatuko?

Krisi garaian gaude bai, baina batzuk 'maju' hasi dira beraien 'arkoiak' betetzen (Jain-

koaren izenean?) Utzi dezatela beti izan den bezala: nafar guztion 'ondarea' izaten!!

San Jose Zahar
Etxearen
eskertza

San Jose Zahar Etxea eta Yoli GRAGIRENA

Apirilaren 16tik 22ra Aste Kulturala ospatu genuen San Jose Zahar Etxean eta jendearen la-

guntzari esker hainbat ekitaldi antolatzeke aukera izan genuen. Laguntza horri esker, gure xaharrek aski momentu atseginak pasatzeko aukera izan zuten eta lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eman zuten guztiei: Rosa Mari Errandonea, Maria Mitxelena, Ilargi bete sorginen larrean antzerki taldea, Irazoki bikotea, Garaxi, Patxi, Iban, Aitor eta Julen bertsolariak, Emaizta antzerki taldea, Aritz eta Marta.

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euzkoal Herria 30€
- Europa 50€
- Bortari, Urtezu eta Matorra 30€
- Amerika eta Australia 120€
- Ipar Euzkoal Herria 30€
- Librea 10€



(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Merino II.aren ezkerria ikusi dudan dotore eta konpletoena da. Bertze pilotari batzuek ere ongi zuzentzen dute pilota ezkerrekin behetik. Eta goitik zoragarri eman dionik ere bada. Baina ez dut inor eza-gutu behetik eta goitik bietatik hain ongi jotzen duenik (...) Ez dugu atzendu behar urte bat eta bederatzi hilabete bakarrik daramatzala profesionaletan».

Inaxio ERRANDONEA

Aspeko zuzendari
komertzial beratarra
D. VASCO, 2012.05.02



«Saillkapen nagusian lehen hamarren artean sartzeko eta etapa bat irabazteko eskatu dit taldeak, eta nire buruari jarri diodan helburu berbera da hori. Iazkoa aztertuta, hori eskatzen diot nire buruari. Bada-ki helburu zailak direla, baina taldeak ez dit eskatu lortu ez dudan ezer (...) Iraupen luzeko igoera asko daude Giroan eta zentzuz jokatu beharko dugu».

Mikel NIEVE

Euskaltel-Euskadiko
txirrundulari leizarra
BERRIA, 2012.05.04

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke nor den Iñaki Alzuiet?

35 urte gazte umoretsu eta bere bi ttiketaz harro dagoena, eta motorzalea.

Afiziorik gustukoenak?

Familia, lagunak eta motorran ibiltzea.

Pintatzeko, kanpoko lana ala barronekoa duzu nahiago?

Biek badute beren xarma.

Pintore on bat izateko sekretua zein da?

Gustura aritzea eta egunero zerbait berria ikasteko prest egotea.

Krisia nabaritu duzu lanean?

Bai, tamalez norik ez.

Urdazubiko bestetako ekitaldirik gustukoena zein duzu?

Zikiro eguna, aski giro ederra izaten da.

Zer dute faltan Urdazubiko bestek?

Eguraldi ona ziurtatzea.

Eta Urdazubik zer du faltan eta zer soberan?

Orain aita naizenez, umeentzako parke eta haur eskola egokiak.

Urdazubi eta Zugarramurdi Baztanen barne sartzan di-tuenari zer erranen zenioke?

Aski ongi gaudela gauden bezala.

Oporretan gustura bisitatuko zenukeen toki bat?

Estatu Batuak, Egipto...

Amets bat?

Nire familiaren eta ondokoen osasuna.



Iñaki ALZUIET → Urdazubiko margolaria

CRI SOL

EZPALAK, PELLET ETA EGUR GALDARAK

LASTER DEIALDIA, %40 ARTERAINO DIRULAGUNTZEKIN

PUNTAKO MARKAK JARTZEN DITUGU ATARRAMENDU HANDIAK ETA AMORTIZAZIO AZKARRAK LORTZEKO

10 URTEKIN GORA DARAMAGU BERRIKUNTZA ETA LIR BERO LANETAN

Tfnoa: 606 971 316 / 948 131 815

CRI SOL

Pol. Ezkabarte C/I n°28
31194 ARRE - NAVARRA
www.cri-sol.com

GIZARTEA

ARRANTZA → HASI DA DENBORALDIA

Lehenbizikoa, Bidasotik Erriberara joan da

Argedasko Jose Brontek arrantzatzen du lehen izokina

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 1ean irekiz arrantza denboraldia eta goizaldeko ordu tikietarako hurbildu ziren arrantzaleak Enderlatsa ingurura, izokin arrantzarako txanda hartzeko. Aurtengo *Lehenbizikoa* 08:25ean arrantzatzen zuten Argedasko Jose Brontek: 6,540 kilo eta 82 zentimetroko izokina. Zortzi urte omen daramazki Erriberatik Bidasora hurbiltzen, baina lehenbiziko aldiz lortu du aurten izokina arrantzatzea. Donostiako Rekon-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ezkerretik hasita, Rufino Dozagarat, Jose Bronte eta Lorenzo Jaurena saria ematen.

do jatetxeko Txomin Re-kondok 1.600 euro ordaindu zituen *Lehenbiziko* agatik. Joan den urtean ere berak eraman zuten Bidasoan saltzen ahal den izokin bakarra,

«jattetxeari fama ematen diolako».

Berako Ehiza eta Arrantza Elkartearen izenean, Lorenzo Jaurena presidentea, Migel Angel Martinez presidente-

ordeak, Venancio Quiroga ingurumen arloko bokalake eta Rufino Dozagarat arrantzako bokalake, *Lehenbizikoa* arrantzatzeagatik oroitarria eman zitoten Argedaskoari.

KULTURA → BAZTAN-BIDASOKO XXV. LEHIAKETA

Bertsopaper lehiaketarako lanak aurkezteko epea zabalik dago

Maiatzaren 25erako aurkeztu behar dira lanak

TTIPI-TTAPA

Bidasoko XXV. Bertsopaper lehiaketa antolatu dute Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso Eskolak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoan inguruan bizi direnentzat. Ja-

torrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira bakarrik eta norberak aukeratuko du gaia, doinua eta neurria.

Parte-hartzaileak lau mailatan banatuko dira: A mailan, 12 urte arteko haurrek parte hartuko dute eta guttienez bi bertso edo lau koplak osatu beharko dituzte. Sariei dagokienez, 30 euro eta trofeo bat eta bigarrenak 20 euro. B mailan, 12 urtetik 16 ur-

te arteko gazteak sarituko dira eta guttienez lau bertso egin beharko dituzte. Irabazleak trofeoa eta 80 euro eramanen ditu eta bigarrenak 40 euro. C mailan, 16 urtetik 18 urte arteko gazteak sarituko dira eta guttienez sei bertso egin beharko dituzte. Irabazleak trofeoa eta 100 euro jasoko du eta bigarrenak 80 euro. D mailan, azkenik, 18 urtetik goitikoek hartuko dute parte eta guttienez zortzi bertso egin

beharko dituzte. Irabazleak 150 euro eta trofeoa jasoko du eta bigarrenak 100 euro.

Bertsoak maiatzaren 25a baino lehen bidali beharko dira helbide honetara: *Berako Kultur Etxea, Baztan-Bidasoko XXV. Bertsopaper Lehiaketa, Eztegarra pasealekua 11, 31780 Bera (Nafarroa)*.

Bertsoak onartuak izateko izenburua eta adina eramanen dute bakarrik agerian. Bertze gutun-azal itxi ba-

BORTZIRIAK

Aisialdiko begiraleen lan poltsa egiteko probak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea begiraleen lan poltsa osatzea erabaki du. Lan poltsa horretatik sortuko den zerrenda nagusi-ki udaleku irekietan lan egiten duten begiraleak kontratatzeko erabiliko da. Bi motatako lanpostuak izanen dira. Batetik, begirale arduradunen lan poltsa egiten da. Horretarako beharrezkoa da 18 urte beteak izatea, eta batxilergoko edo goi mailako lanbide heziketako (edo baliokidea) titulazioa izatea. Bertzetik, begiraleen lan poltsan parte hartzeko nahikoa izanen da 16 urte beteak izatearekin, eta DBH edo baliokide izan daitekeen titulazioa aurkeztearekin. Izena emateko maiatzaren 18ko 12:00 arteko epea izanen da. Lan poltsan parte hartzeko probak maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean izanen dira.

UDALA → BOE MAHAI GAINEAN

Babes Ofizialeko Etxebizitzak zertan diren galdetu dio Ezker Abertzaleak Udalari

«Behin betiko erabakia hartzeko ordua dela» erran du

TTIPI-TTAPA

«Zertan dira Babes Ofizialeko Etxebizitzak?». Horixe galdetu dio Ezker Abertzaleak Udalari. Ezker Abertzalearen arabera, «badira 15 urtetik goiti azken BOE Babes Ofizialeko Etxebizitzak egin zirela. Bada ordua berzte promozio bat ateratzeko. Horren adibide, joan de agintaldian egin dako zerrendan apuntatu ziren 70 lagunak».

Aitzineko Udalak bi sektore martxan jartzeko prest zituela gogoratu du Ezker Abertzaleak, suhiltzaileen zelai ondokoa eta Agerrakoa. Bi planak geldirik daudela dio: «suhiltzaileen parkekoa lurjabe batek errekurtsoa sartu duelako. Ikusirik egungo krisi egoera, promotoreen irabaziak aunitz jautsi dira eta normala da plan hauen garapena oztopatu edo mantsotu nahi izatea. Modua bilatu behar da Udalaren etxebizitzak egin ahal izateko».

Agerrako plana «Udalaren erabakiaren esperoan dago», dio Ezker Abertzaleak. «Plan honen aldaketa 2003-2007 agintaldian prestatzen hasi zen, 2007-2011 agintaldi osoa plana landu eta hobetzen eman zuen Uda-

lak azkeneko osoko bilkuran, onartu gabe utzi arte, merkataritzari buruz azterketa egin bitartean»

Plan hau Berako «garrantzitsuena» dela uste du, «tamainagatik eta batez ere, BOE kopuruagatik, 152 guztira». Sektore hori bultzatzearen faktore garrantzitsuenak aipatu ditu: Kaxerna mendi magalean 18 etxebizitza bi-familiar egin beharrean Agerrako zelaian egitea mendia eremu berde utziz; Agerratik Kaxerna gainera joateko behar bezalako errepidea egitea; Kaxerna gainean eremu berde publiko handi bat izatea egunen batean aterpea edo bertze dotazio publikoren bat egiteko; Agerrako zelaian familiabakarreko bizitzentzako, bizitza kolektiboak egitea lurra hobeki aprobetxatuz eta herri sarreran pasealeku eder bat izatea berdegune eta plazarekin».

Planaren helburua «auzo bizi bat sortzea» da Ezker Abertzalearentzat «eta horretarako merkatal eremua pasealekuerdian jartzeko apustua egiten da. Batetik, baxu kometzialak ez direlako erakargarriak, eta bertetik, etxebizitzaren bajeetan bizitzak egiteko asmoa dagoelako eskaera bada goelako». Gaineratu duela, «sektore honetako 369 bizitzei zerbitzu eta bizia eman asmoz eremu komertziala pasealeku-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mende laurdeneko ospakizunak

Abesbatzaren 25. urteurreneko ospakizunek aitzinera segitzen dute. Maiatzaren 5ean kontzertu ederra eskaini zuten Kultur Etxean eta 25 urte hauetako irudien erakusketa ere zabaldu zuten. Egun handia, halere, ekainaren 3a izanen da.

an kontzentratu da, lurpean 1.200 eta lurgainean 550 metro izanen litzuzkeen eraikin bat egiteko modua eskainiz».

Merkatal eremu honen herriko komertzio txikiaren izan dezakeen eragina jakitea zaila dela onartu du. «Zalantzak Udalak egin beharreko azterketak argitu behar zituen baina dirudienez, ez ditu argitu eta orain urte bateko egoera berdinean gauden». Ezker Abertzalearen hitzetan, «bada ordua Udalak behin betiko erabaki bat hartzeko».

Ingeles udalekuak

Uda honetarako ingeles udalekuak antolatuta dituzte Labiaga Ikastolan. Lau txanda eskainiko dira: uztailaren 2tik 13ra, 16tik 27ra eta 2tik 27ra eta abuztuaren 9tik 24ra. Haur Hezkuntzako 5. maila eta DBH 2. maila bitarteko ikasleentzat izanen da eta nahiz eta izena emateko epea maiatzaren 11n bukatu zen, ikastolatik erran dutenez, badago oraindik apuntatzeko aukera: 948630172 edo bera@ikastola.net.

Goazen plazara!

Euskal presoen eskubideen alde, Euskal Herriko Plazak bete nahi ditu Herrira mugimenduak larunbatean, hilak 19, eta Beran ere plazara ateratzeko deialdia egin dute.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Finisterretik Jerusalemara

Guillermo Nagore kazetaria Galiziako Finisterreko itsasargitik Jerusalemeko bidea oinez egiten ari da, Alzheimerren inguruan kontzientziatzeko. Hilaren 4an, Irun eta Igantziko Benta arteko bidea egin zuen eta Berara ailegatutakoan, hitzaldia eskaini zuen. Beratik Doneztebe aldera joatekoa zen, handik Bertizarranara eta gero Almandozera, Ultzamarako bidea hartzeko. Blogare badu: <http://lame.moriaeselcamino.com/>.

Kultur ekitaldiak

Euskara Batzordearen eskutik, *Gure bide galduak* antzezlanaren ikuskerak aukera izanen da larunbatean Kultur Etxean, 22:00etan. Bortzirietako Berdintasun Arloak eta Kultur Batzordeak antolatuta, berriz, *Susanaren iraultza* antzezlanaren ikusgai izanen da hilaren 27an Beralandetan, 19:00etan. Toki berean, ekainaren 4 eta 11n, *Betaurreko moreak* berdintasunaz presatuntza saioak izanen dira, 17:30etik 20:30era.

Musika Eskolakoek entzunaldiak prestatu dituzte: asteartean, hilak 15, klarinete, saxofoi eta

trumpeta entzunaldia; asteazkenean bibolinaren txanda 18:00etan; hilaren 22an trikitixa eta akordeoia 18:00etan; maiatzaren 23an perkusioa 17:30ean; hilaren 24an gitarra 18:30ean; hilaren 29an piano doinuak 18:00etan eta hilaren 30ean txistua 18:30ean.

Errabiaren txertoa

Zakurren identifikazioa eta errabiaren aurkako txertoa emateko, ekainaren 4 eta 5ean albaitaria herrian izanen da (16:00-19:00) eta ekainaren 7an Alkaia-gan (16:00) eta Zalain Zokan (17:30).

LESAKA

ELKARTEAK → SUKALDARITZA LEHIAKETAK HILERO

25. urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu du Arrano elkarteak

Larunbatean barrikotea eta hurrengoan sukaldaritza lehiaketa eta haurrentzako eskulan tailerra antolatu ditu

Aitor AROTZENA

Arrano elkarteak 25 urte bete ditu aurten eta hori ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu ditu. Inauterietan, mozorrotzeko gai bat aukeratu eta elkarrekin kalejira eta bazkaria egin ondo-

tik, maiatzaren 19an barrikotea egingen da.

Hilabetero sukaldari ezberdinekin egingen diren sukaldaritza lehiaketak, berriz, maiatzaren 26an hasiko dira, larunbatarekin. Lehiaketan prestatutakoa das-tatu nahi dutenentzat bazkaria izanen da, 10 euroren truke. Izen ematea maiatzaren 23rako egin behar da. Menuan, zainzuriak holar dar saltsan, gazpatxoa, zezen buztana gisatua, txokolate txuri saltsa fruitu gorriekin eta "egiazko" kafe irlandesa izanen da.



ARGAZKIA: JAVIER ARRIOLA

Gares eta Aiegi arteko zatia egin dute Santiago Bidean

45 "erramesek" egin zuten maiatzaren 6an Beti Gazterekin Santiago Bideko seigarren etapa, Gares eta Aiegi artekoa. Gorabehera handirik gabe egin zuten ibilbidea, zereal-landa eta mahasti artean eta Lizarrako kiroldegian bazkaldu zuten. Hurrengo etapa Aiegi eta Sansol artean egingen dute, Sanferminen ondotik.

Gainera, sukaldaritza lehiaketa egiten den asteburuko larunbat goizean eta igande arratsaldetan pintxo-pote eskainiko zaie bazkideei Arranon, hau da, tragoa eskatu eta pintxoa don izanen dute. Maiatzaren 26an, gainera, goizeko 10:30ean haurrentzako eskulan tailerra izanen da plazan.

Ekainaren 9an, mendirteera egingen da Goizuetara, egun horretan egingen den UEMA Eguneko bestan eta herri bazkarian parte hartzera. Sanfermin egunean, ohiko bertso saioa antolatuko du Arranon pla-

zan eta uztailaren 10ean, 25. urteurrenaren kamiseta jantzi eta eguerdian Arranon brintsaldetan pintxo-potea eta Sanferminetako besta batzordeak antolatutako bazkaria izanen dira.

Irailean, Tuterako Haize Hegoa elkartearekin topaketa egingen da Tuteran eta urte bukaeran azken besta egingen da. Guzti honetaz gain, bazkide guztiekin bideo bat egin nahi dute orogarrri moduan eta elkartearen historiarekin, argazkiekin, anekdotekin... liburuxka bat prestatu nahi dute.

FLASH

Musika eskolaren kontzertua

Udal Musika Eskolako piano eta flauta ikasleek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 24an, 19:00etan hasita udal pleno aretoan.

Errabiaren kontra txertoa

Maiatzaren 30 eta 31n, 16:00etatik 19:00etara suhiltzaileen biltegi- an izanen da albaitaria, zakurren identifikazio eta errabiaren kontrako txerto kanpainaren baitan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Jasone Telletxeak eta Matixa Oteizak irabazi dituzte Sanferminetako lehiaketak

Sanferminak iragartzeko kartela Jasone Telletxeak egindakoa izanen da. Gona bere lanak irabazi du lehiaketa, 9 lanen artean herri-bozketan berea izan baitzen botu gehien jaso zuena. 400 euroko saria jaso du. Programaren azal lehiaketan, aurkeztutako 11 lanen artean, Matixa Oteizaren *Zintzilik* lanak irabazi du 400 euroko saria. Programaren gibe-ko aldean agertzeko, herriko 38 ikasleren lanak aurkeztu ziren eta Mayi Pikabearen *Aperitifa* marrazkiak lortu du saria. Bere lana programaren kontrazalean ikusteaz gain, eskola materiala erosteko 200 euroko taloia izanen du sarizat.

Lesaka-Bera AUTOESKOLA

Eztegara, 12 • BERA Iturrumazubiko plaza, 8 • LESAKA
948 630 652 948 637 870

ESKAINITZA BEREZIAK

• Globalen guztiok
 • Globalen guztiok
 • Globalen guztiok
 • Globalen guztiok

Orain bota BER-Ari erri

UDALA → AZPIEGITURAK

Eskolako jangela eta sukaldeak berritzeko obrak uztailean egingen dituzte

Udalak 30.000 euro inbertituko ditu eta Guraso Elkarteak bertze 21.000 sukaldeko ekipamenduan

maiatzaren 17an irekiko dituzte. Hainbat enpresek agertu dute interesa eta, subastaren prezioa (109.622 euro) gutienez berdindu edo hobetu beharko dute.

Larraburuko batzarra


Apirilaren 29an egin zen Larraburuko urteko batzarra. Hainbat gailandu bidenabar, junta berritu zuten: Juana Mari Arburua atera eta M^a Luz Ariztegi sartu zen eta Joxepa Etxenike atera zen baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez zen segurua nor sartuko den.

Altxatoko batzarra

Apirilaren 30ean egin zen Altxatoko batzar orokorra eta egindako lanen eta hurrengo urterako asmoen berri eman zen: Gasna Feria, dantza taldea, pilota eskola, usategietako igandea, San Juan sua, inauteriak... Dagoeneko martxan dira udaberriko pilota txapelketa eta argazkilaritza praktikorako ikastaroa. Bi klase teoriko egin dira maiatzaren 8an eta 11n; argazkiak nola atera eta hainbat teknika azalduz; guztia Gema Arrugaetaren eskutik. Hirugarren eta azken klasea maiatzaren 26an izanen da, goizeko 10etan Kultur Etxean. Animatzen den guztiarentzat gonbita luzatua dago.

PINU SALMENTA

Iarmendi, Irazako eta Sagartzu aldeko pinuak saldu ditu Udalak. Plikak



UTZITAKO ARGAZKIA

Itxura hau hartuko du obra eginda.



ARGAZKIA: JONE BIZENTE

Trikitilari ezagunak herrian

Apirilaren 27an Gipuzkoa eta Bizkaitik 30 trikitilaritik goiti etorri ziren Etxalarra; hauen artean, *Faborez* CD bilduman parte hartutako hainbat trikitilari ezagun: Izer, Astiasaran II.a, Larrañaga, Lutxurdio, Aitziber, Harkaitz Allur, Patxi Allorga, Zabalo, Elortza... Ilunabarrean kalejira egin zuten herrian ostaturaz ostatu eta ondotik Iriondoan afaldu zuten. Afal ondoko trikiti doinuek luze iraun zuten.

Errabiaren kontrako txertoa

Zakurren identifikaziorako eta errabiaren kontrako txertoa emateko, ekainaren 6an albaitaria mataderoan ego-

nen da (16:00-19:00).

Ehiztariak

Usoa ehiza elkarte-koek urteroko asanblada egin zuten apirilaren 21 ean. 20 lagun bildu zi-

ren eta bertze gaien artean, junta berritu zen. Migel Mari Irigoien atera, eta Jon Mikel Asensio sartu zen. Hurrengo bilera larunbatean 20:00etan egingen dute.



ARANTZA

Merkataritza → Jabe berriekin

Apezenea denda berriz ere zabalik

Igande arratsaldetan izan ezik, egunero irekia

Nerea ALTZURI

Haur koxkorretako oroitzenetan Apezenea denda horixe dugu aunitzek, Anunciacion eta Maurixi burutan... Herriko plaza baino lehentxeago dagoen Apezenea etxean denda zegoen. Lorategiak bi aldetan zituen pasilo batetik pasatu, eta goiko solairuan, bitzta zuten lekuan, denda kokatzen zen. Atea irekitzerakoan, gainekoaldean zegoen ezkil ttiki batek jotzen zuen eta horrela, norbait dendara mandatuak egitera joan zen seinalea izaten zuten dendariak. Urte mordoxka joan dira geroztik. Anunciacion eta Maurixi, etxeoandrea eta neskatoa, hurrenez hurren, aspaldi gure artetik joan zitzaizkigun.

Baina dendaren historia berpiztu da. Duela zortzi urte, Jabi Larretxea Pabloeneakoak eta Daira Rodriguez De Souza senar-emazteak etxea erosi zuten. Zaharberitze lanak egin ondotik, etxe ederra gelditu da.

Orain beheko solairuan denda paratu dute. Apiril hasieran inauguratu zuten. Denda batek eskaintzen ahal dituen produktu guztiak daude, okindegi, gozotegi eta kafetegi zerbitzua ere bai. Astelehenetik larunbatera, goiz eta arratsalde zabalik dago eta igande goizez ere bai.

Horrelako zerbitzuak herrian izatea ederra da. Zorte on Daira eta Jabiri!

Goazen plazara!

Larunbat honetan, maiatzak 19, Herrira mugimenduak deituta, Euskal Herri osoan ekimenak eginen dira euskal presoen eskubideen alde. Euskal Herri osoko plazak jendez bete nahi



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendi itzulia igandean!

Dagoeneko aunitzek apuntatua izanen duzue aspalditik bai! Aitzineko alean, tarte honetan nola kirolaren atalean azaldu genuen bezala, igande honetan, hilak 20, Arantzako Mendi Itzulia izanen da. www.menditzulia.com web orrian informazio osotua aurkituko duzue. Ea eguraldi ona izaten den! Animzte!

dira *Goazen Plazararen* bidez, baita Arantzakoa ere. Goizeko 11etan hasita, haurrentzako jokoak izanen dira eta ondotik, herriko dantzarien emanaldia. Eguerdian, elkarretaratzea eginen da.

'Bertsolari' filma

Euskara Batzordearen ekimenez, maiatzaren 26an ilunabarreko 8etan Zahar Txokon, *Bertsolari* dokumentala eskainiko da. Iazko Donostiako zinemaldian aurkeztu ondotik, sekulako arrakasta izan du. Gure inguruko herrietan ere, han eta hemen ikusi ahal izan da. Bertsolariak bertsoa egin aitzinetik dituen bizipenak, bu-

rutik pasatzen zaiona eta oro har zein sentsazio izaten dituen kontatzen da dokumentalean.

14 urtetik gorakoek, hiru euroko sarrera ordaindu behar dute; adin honetatik beheitikoei, berriz, euro bat kobratuko zaie. Aukera ezin hobea kalitate handiko dokumental hau herrian bertan ikusteko.

Bataioak eta jaunartzeak

Urtean bitan, maiatzean eta azaroan bataioak egiteko aukera dago herrian. Joan den larunbat eguerdian, Zelaiondoko Dani eta Rosaren Ander Etxegarai Maiz eta Senberroko Josu eta

Aitziberren Aritz Iparragire Alberdi bataiatu zituzten.

Bertalde, ekainaren 10ean, goizeko 11etan mezan, sei neskek Jaunartzea eginen dute: Araitz Madariaga Otegi, Eider Taberna Mutuberria, Uxue Alustiza Iparragirre, Idoia Altuna Bergara, Eloisa De Souza De Souza eta Maddi Larralde Apezetxea.

Errabiaren kontrako txerto kanpaina

Zakurren identifikazio eta errabiaren kontrako txerto kanpainaren barne, maiatzaren 28an al-baitaria Gorapean egonen da, 16:00etatik 19:00etara.

elika
Dietetikoa eta Nutritsioa

- Ahaztatuta dagoenak: nutrikerria, gaitz kronikak...
- Dietariak: haurrak, emakumeak, gaitzak...
- Dietariak: haurrak, emakumeak, gaitzak...
- Dietariak: haurrak, emakumeak, gaitzak...
- Dietariak: haurrak, emakumeak, gaitzak...

Itzoka, 6. beheko - BERA - T. 948 631 263 - elika@bera.com

LOCHY OPTIC

Itzoka, 6. beheko - BERA - T. 948 631 263

ATERPE

Itzoka, 6. beheko - BERA - T. 948 631 263

www.arantza.net

XATURETXEA

Itzoka, 6. beheko - BERA - T. 948 631 263

Karsuk

Muebles de cocina
Muebles de cuisine
Suaileko altxariak

Carlos Pontibar Saenz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 025 430
M +34 699 894 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

IRU BIDE

Itzoka, 6. beheko - BERA - T. 948 631 263

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → KINTAK

Larunbat honetan kinto besta gehiago izanen dira

1958, 1959 eta 1960 urteetan jaiotakoak bilduko dira

TTIPI-TTAPA

Azken asteotan kinto besta saila egiten ari dira. Duela bi asteko larunbatean lau kintak egin zuten eta igandean bertze hiruk egin zuten. Apiril hasieran ere bat baino gehiago egin ziren. Dagoeneko, beharbada, gehientsuenak eginak izanen dira baina larunbat honetan, maiatzak 19, 1958, 1959 eta 1960. urteetan sortutakoek hartuko dute lekukoa. La Villa jatetxean elkartuko dira.

Jaunartzeak

Bortz neska-mutikok Jaunartzea eginen dute

maiatzaren 27an. Hauek izanen dira protagonistak: Oier Sein Lizardi, Aiala Mitxeo Etxeberria, Anne Iantzi Irigoien, Maren Etxenike Guerra eta Unax Arbe-

laitz Iguzkiagirre. 11:00etan izanen da meza.

Errabiaren kontrako txertoa

Zakurren identifikazio eta errabiaren kontrako

txerto kanpainaren barne, maiatzaren 29an al-baitaria aparkalekuan egonen da, 16:00etatik 19:00etara. Zakurrak lotuak eta bozalarekin eraman behar dira.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Zebrabidea kokxarekin

Frontoi ondoan badena paratu dute berriki. Orain arte arriskutsu zegoen, batez ere haurrak plazatik bidera ateratzen zirenean, eta orain horrekin eta zebra bidearekin egoera hobetzeko itxaropena dute.

BORTZIRIAK

Udaleku irekietan izena emateko epea laster zabalik

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan ohi den bezala, Bortziritako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu, Dindaia Fundazioarekin batera. Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin udalekuak uztaillaren 2an hasiko dira, eta hilabete horretako 27ra arte arituko dira. Lesakako kasuan, sanferminak dirrela eta, udalekuak uztaillaren 16an hasi eta abuztuaren 10ean bukatuko. Herri guztien kasuan, udalekuak astelehenean ortziralera izanen dira, 10:00etatik 13:00etara. Izen ematea maiatzaren 21ean hasiko da, eta zabalik egonen da hilairean 31ra arte. Izen ematea Bortziritako Euskara Mankomunitatean egin behar da: 948634125ra deituta (goizez) edo e-postaz, euskara@bortziriak.org helbidera idatzita. Matrikulari dagokionez, ume bat apuntatuz gero, 80 euro balio du; bi anai-arreba baldin bada 140 euro; hiru anai-arreba izanik 180 euro. Taldea sortzeko beharrezkoa da herri bakoitzean guttienez 8 neska-mutikok izen ematea. Udaleku irekietan adinaren arabera bi eskaintza egiten dira. Batetik, 3-7 urte bitartekoek udalekue-tako ohiko ekintzak izanen dituzte. Bertetik, 8-12 urte bitartekoentzat adin tarteko horri egokitutako sormen tailerrak izanen dira.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akupuntura eta herriazalria
Parkes eta parket flutatzalria
Jartza
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 791

948 631 218
Kantillonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

carinho
gourmetta etxeak
Orain eragintzen ditugun
1984ko abuztuaren 17an
www.carinho.es

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T: 948 571 131
E-posta: imanol@iturria.com
Eskatu zuretzatko konposizioak gure

GIZARTEA

ESKUALDEA → MAIATZAREN 19KO EKIMENA

Borzirietako udal hautetsiek Goazen Plazara ekimenarekin bat egin dute

Plazak jendez bete nahi ditu Herrira mugimenduak

TTIPI-TTAPA

Plazak bete kartzelak hustutzeko helburuarekin Herrira mugimenduak maiatzaren 19rako deitutako Goazen plazara ekimenarekin bat egin

dute Borzirietako gaur egungo alkate eta zinegotziek, baita lehengo hautetsiek ere.

Beran, maiatzaren 5ean egindako agerraldian agertu zuten, «Bilbon urtarrilaren 7an egin zen manifestazioak milaka herritarren partehartzea izan zuen, eta honen aitzinean gobernuak ez dira mugitu. Horregatik dauka maiatza-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Gaur egungo eta lehengo udal hautetsiek bat egin dute maiatzaren 19ko deialdiarekin.

ren 19ko mobilizazioak hainbertzeko garrantzia, herri presoak bakarrik mugiaraziko dituelako».

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako herritarrei ere deia luzatzeko probexu zuten agerraldia, euskal presoekiko elkartasunez maiatzaren 19ko eguerdian bortz herrietako plazak betetzeko.

Zehazki, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeari, gaixotasun larriak dituzten presoak kalera ekartzeari, bizi arteko zigorrak ezartzeko neurriak indargabetzeari, zigorraren biherena eta hiru laurdena bete dituzten presoak kalera ekartzeari, Frantzian preso direnei baldintzapeko askatasuna aplikatzeari eta isolamendu, mi-

ttard eta bakartze egonei akabera ematea eta frantziar eta espainiar estatuek darabilten espetxe-politika egokitzea, hasi den aro berrian gatazka konpontzeko bidean modu positiboan eragiteko, horietan dira maiatzaren 19ko ekimenarekin Herrira mugimenduak plazaratu nahi dituen aldarrikapenak.

IKASTAROA → CEDERNA GARALUR ELKARTEAK ANTOLATUTA

15 lagunek egin dute dinamizazioa eta turismoa lantzeko enplegu tailerra

Prestakuntza jasotzeaz gain, praktikak ere egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Cederna-Garalur elkarteak sustatuta Donezteben egin den komunitatearen dinamizazioari eta turismoari buruzko enplegu-tailerraren amaiera-ekitaldia egin zen apirilaren 30ean.

Enplegu-tailer hau Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez bultzatu eta finantzatu du, Cederna Garalur Elkarteak sustatu du, Estatuko Enplegu Zerbitzu publikoaren



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ikastaroan parte hartu dutenak Cederna eta laguntza eman duten udal ordezkariekin.

eta Europako Gizarte Funtzaren finantziarioekin. Doneztebe, Lesaka, Baztan eta Berako Udalek ere babestu dute, eta Prestakuntza, Birziklapena eta Enplegu-

rako Nafarroako Institutuko Sustapen eta Garapen Unitatearen aholkularitza teknikoak izan du. Tailerra azaroan hasi eta apirilaren 30ean izan zen amaiera-ekital-

dia, Jose Javier Esparza Nafarroako enplegu Zerbitzuaren zuzendaria eta Jose Maria Aierdi Cederna Garalur Elkartearen lehendakaria tartean zirela.

Baztan-Bidasoko 15 lagunek jaso dute prestakuntza kultura- eta turismo-proiektuak dinamizatzeko eta kudeatzeko, eta, horrela, aukera izateko lan-merkatuan txertatzeko turismoa eta kultura lantzen dituzten enpresen edota zonaldeko toki-erakundeen bitartez. Praktikak ere egin dituzte erakunde, elkarre eta enpresetan.

BERTIZKO PARTZUERGOA KONTENT

Bertizko Partzuergoetik azaldu dutenez, hiru emakume gazte Partzuergoko teknikoekin elkarlanean aritu dira ohiko lanetan eta Partzuergo kontent gelditu da.



Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazten da

2012ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

2012ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan nor-bait era iraunkorrean bizi ala ez	77,50 €	46,32 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak	77,50 €	254. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 2011ko abenduaren 28a
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	152,30 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	232,20 €	
1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	154,80 €	
2. Ostatua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak	309,90 €	
3. Ostatua. Pub eta diskotekak	387,00 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkartea gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	387,00 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	696,90 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Landetxeak.	155,30 €	254. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 2011ko abenduaren 28a
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	132,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	108,70 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	541,70 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	774,00 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	386,50 €	
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	774,00 €	
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.161,10 €	
Lantegiak, lau langile bitarte	77,50 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	154,80 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	387,00 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	774,00 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.161,10 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.200,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.242,90 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	752,20 €	

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2012ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2012ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2012ko maiatzaren 1ean

Presidentea,

Miguel Maria Irigoien Sanzberro

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → AGORRETA MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolaren Eguna ospatuko du Agorretak maiatzaren 27an

Kalejirak, bazkaria eta dantzaldia izanen dira, bertzeak bertze

TTIPI-TTAPA

Agorreta Musika Eskolako ikasle, ikasle ohi, irakasle zein gurasoek egun polit bat pasatzeko aukera izan dezaten, Musika Eskolaren Eguna antolatuta dute maiatzaren 27rako.

Goizean, 11:00etan, ateak irekiak egonen dira eta musika tresnak probatu eta eskola eza gutzeko aukera izanen da. 12:30ean kalejira egingen da eta ondotik, 14:00etan, bazkaria eskolako jantokian. Bazkarira joan nahi duenak maiatzaren 16a baino lehen apuntatu behar zuten (948 451412ra deitu edo esmusidoneztebe@terra.es helbidera idatzi).

16:30etik aitzinera kalejira egingen da eta 17:00etan dantzaldia izanen da Santa Luzia plazan, Aierri taldearekin.

Bertzalde, laster zabalduko da Musika Eskolaren 2012-2013 ikasturterako matrikulazio kanpaina. Maiatzaren 21etik 25era ikasle zaharrek matrikulatu behar harko dute, maiatzaren

28tik ekainaren 8ra ikasle berriek eta irailaren 10etik 14ra bertze epe berezi bat zabalduko da. Musika Eskolan ikas daitezkeen tresnak ondo-koak dira: akordeoia, gitarra, gitarra elektrikoa, pandereta, perkusioa, pianoa, trikitixa eta txistu. Helduendako taillerak ere izaten dira.

Urdaiazpikoen zozketa

Iragarri bezala, hama-hiru urdaiazpiko zozketa zuztzen Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak apirilaren 30ean eta hauek izan ziren sarituak: Legasako Antonio, Sunbillako Koro, Doneztebeko Jasone, Arraizko Bentako Marisol, Donamariako M^a Victoria, Doneztebeko Jasone, Iturengo Xabier, Iturengo Miriam, Ezkurrako Ana, Donamariako Periko, Doneztebeko Miren, Labaiengo Lourdes eta Aurtizko Josune.


Zinema denboraldia

Igande honetan, hilak 20, eskainiko dira Guraso Elkarteak antolatutako zinema denboraldiko azken bi pelikulak: *El gato con botas* eta *Fuga de cerebros 2*. Ondotik, zozketa egingen da bildutako en artean.



Ba al zenekien...

Ekainaren 9an egingen dela Erreka Kirol Elkartearen Eguna? Eta ekainaren 24an, berriz, herri krosa egingen da. www.herrikrossa.com web orrian xehetasunak eskura daude.



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

Bikain Errekako judokak

Denboraldia akitzeaz dago eta azken aste hauetan bi txapelketetan izan dira Erreka Kirol Elkarteak judokak. Alde batetik, Nafarroako Infantil mailako Txapelketan 48 kiloz beheko kategorian Maider Jabalera azpitxapeladun izan da eta hirugarrena Andrea Vazquez. Bertze aldetik, alebinek Nafarroako txapelketaren lau domina lortu dituzte. Harizt Bereau txapeladun izan da, eta Gogor Atxalandabaso eta Cristina Arambel Nafarroako azpitxapeladunak atera dira.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

18 buru ahari lehiaketan

Aurten seigarren aldiz, Udaberriko Feria egin zen maiatzaren 4an. Tartean, ahari lehiaketa egin zen eta hemezortzi ahari aurkeztu ziren, hamabi artzainenak. Ahari muturbeltzen artean, Donamariako Zabalteneko Joxe Mari Indarendako izan zen 120 euroko lehen saria. Bigarren eta hirugarren sariak, 70 eta 50 euro, Beintza-Labaiengo Iñarreko Angel Elizondorendako izan ziren. Mutur gorrietan, lehenbiziko bi sariak Oizera joan ziren. Lehenbiziko sariko 120 euroak Telletxeneko-bordako Lucio Telletxenaren ahariarendako izan ziren eta bigarren sariko 70 euroak Abortenekobordako Jaime Urrozentzat. Hirugarren saria Sunbillako Pixarnekobordako Jose Beñardo Bazterrikarendako izan zen. Hortaz aparte, azienda feria polita egin zen eta eskualdeko artisauen lanen erakusketa eta salmenta ere bai.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Pintxo lehiaketako sariak banatu dira

Titi Ostaturia izan da aurtengo pintxo lehiaketako irabazlea eta publikoaren saria Ameziak eraman du. Bertzetik, Marta Indartek eraman du Inurrieta ardoen lotea.

AISIALDIA → 3-7 URTEKO HAURRENDAKO

Udako ludotekan parte hartu nahi duten ala ez jakiteko galdetegia banatu du Guraso Elkarteak

Eskolan ez daudenak ostatu edo dendetan apunta daitezke

Maider PETRIRENA

Bertze urte batez, udan ludoteka zerbitzua eskaini nahi du Guraso Elkarteak eta horretarako 3 eta 7 urte bitarteko neska-mutikoei galdetegia banatu diete eskolan. Ortzegun hau, maiatzak 17, baino lehen eraman beharko dira erantzunak bueltan. Eskolan ez dauden haurrentzat edo bertze herrietan bizi direnentzat, berriz, ohar bana paratu da Iturburu ostatuan, Marisol janari-dendan, Maria Jesus harategian eta udal-etxean apuntatu ahal izateko. Maiatzaren 21era arteko epea izanen da.

Ordaindu beharekoak apuntatzen den haur kopuruaren arabera izanen da, baina gutti goitibeheiti 65 euro Guraso Elkarteko bazkideentzat eta 70 euro gainontze-koentzat. Joan den urtean ludoteka zerbitzua uztail eta abuztuko hila-beteetan izan zen, eta ea aurtengoan ere haur kua-drilla apuntatzen den eta zerbitzu hau berriz aitzinera ateratzen den.

Mendi bizikleta

Apirilaren 29an Lizarran Rural Kutxa Openerako 2012ko laugarren BTT

proban parte hartu zuten hiru herritarrek, ba-koitzak bere mailan: Eneko eta Koldo Herrera eta Gari Larraburu. Enekok ez zuen zorte haundirik izan, bitan gurgila pin-txatu eta ibilaldia egin gabe utzi behar izan zuelako. Koldo anaiak, berriz, 9 urterekin lehenbiziko akitu zuen. Zorionak hirurei!

Ahari lehiaketa

Maiatzaren 4an Uda-berriko feria egin zen Donezteben eta horren barne ahari lehiaketa. Mutur gorrietan hirugarrena Jose Beñardo Bazterrikarena izan zen. Zorionak berari ere!

Mus txapelketa

Malerrekako Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen maiatzaren 5ean Ulibeltzak Elkartean. Hamar bikotek parte hartu zuten eta irabazleak Josune Etxebeste eta Aintzane Arretxea izan ziren eta azpitxapelkunak Jose Mari Arretxea eta Juana Mari Agirre. Bi bikote hauek maiatzaren 26an Zubietan eginen den finalean parte hartuko dute.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Artzain amerikanoen urteko hitzordua

Urtero bezala, maiatzaren 1ean Sunbillako amerikanoek euren besta ospatu zuten. Lehenik, Ulibeltzak Elkartean bildu ziren *hi ball* batzuk edanez eta ondotik, bazkaria eta berendua Ariztigain kanpinean egin zituzten, baita familiako argazkia ere. Arrunt ongi pasatu zutela erran digute, hango kontuak oroitzuz eta argazkiak denak batera ikusiz. Aurten 27 lagun elkartu dira, Basilio Sarobe apaiza barne.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Migel aingeruaren bisita

Apirilaren 29an, bertze urte batez, Migel aingeruaren bisita hartu zuten herritarrek. Arratsaldean meza izan zen eta aingerua adoratzeko aukera ere bai. Ondotik, Basilio apezak hilabetero bisita egiten duen etxeetara Migel aingerua eraman zuen, etxeetan ere adoratu ahal izateko.

Aipatzekoa da, azken aldian Ulibeltzak Elkartean mus txapelketa saila egin direla. Urtarrilaren 13an Euskal Herriko Txapelketako kanporaketa egin zen, martxoaren 30ean Xalao, Xorroxin eta TTIPI-TTAParen aldekoa eta apirilaren 14an hiru hedabide hauen aldeko finala.



ARGAZKIA: MAXUX MUTUBERRIA

Aritz Bereau fin judoan

Apirilaren 28an jokatu zen Nafarroako XV. alebin mailako judo txapelketako finala eta Aritz Bereau Mutuberriak urrezko domina lortu zuen. Zorionak!



ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 26AN EGINEN DA

Malerrekako Eguna hartzeko prestatzen ari dira herritarrak

Adin guztietako jendearendako ekitaldiak izanen dira

Fermin ETXEKOLONEA

Gero eta gutxiago gelditzen da Malerrekako Egunerako eta herritarrak gogotik ari dira prestaketa lanetan. Egun osoko egitaraua izanen da eta 10:30ean eginen den harrera ekitaldiaren ondotik, artisaauak, opil-jatea, buruhaundiak, dantzariak, musikariak eta bertso-lariak izanen dira eguerdira arte. Gero, paella jatea eginen da eta arratsaldean umeendako tailerrak, jokoak eta berrendua izanen dira, baita mus txapelketako finala ere. Aizkora apustua ere jokatuko da eta joaldunek ere beraien harat-honata eginen dituzte.

Gauean afaria eta musika izanen dira, besteak beste. Dena den, egitarau zehatza aldikari honetako 4.

orrialdean aurkituko duzue.

Hortik aparte, aipatzen ahal da, Eratsunek hartuko duela heldu den urtean fiesta honen lekukoa eta urte askotan Saldiasako alkate izan den Pedro Urrutiari omenaldia ere eginen zaio. Eta gazteei aisial-

dirako jarduerak eskaintzeko sortu berria den Aintziña taldeak egun horretan aukeratuko du logoa.

Bestalde, kontuak egiterako orduan, herriek ez dute diru askorik paratu beharko. Bi saski eta afariaren zozketatik, mus txapelke-

tatik eta afaritik gastuei aurre egiteko dirua ateratzea espero da, eta beraz, herritarrentzat ez da gastu handia izanen.

Zozketa aipatu dugula, salduko diren boletuetan eskualdeko produktuen bi saski eta afari bat zozketatuko di-

ra eta mus txapelketako bikote irabazleak txapela eta 100 euro lortuko ditu eta azpitxapel-dunak 100 euro. Herri bakoitzeko bikote txapel-dunari botil ardo baina ere emanen zaio.

Beraz, egun honetan eginen diren ekitaldietan parte hartzeko animatzea besterik ez zaitzugu gelditzen. Bistakoa baita haur, gazte eta helduek denek izanen dutela ongi pasatzeko tartea.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Maiatzeko aingeruak

Neska gaztetxo hauek dira aurtengo aingeruak, maiatzeko hilabetearen mezan laguntzen ari direnak, hain zuzen: Marion Elizalde, Luaia Fagoaga, Lorea Santesteban, Jone Indakotxea, Saioa Mariezkurrena, Ixone Elizalde, Naroa Santesteban, Naiara Anso eta Garazi Santesteban. Sei aingeru ateratzen dira igandero eta aurtun gehiago direnez, txandaka dabilta.

Jaunartzeak igandean

Igande honetan, maiatzak 20, bost gaztetxok eginen dute Jaunartzea: Naiara Anso, Garazi Santesteban, Ane eta Nahia Etxeberria eta Bittori Elizalde. Egun polita pasa dezatela!

Kinto bazkaria

1955ean sortutako kinto bazkaria eginen dute larunbat honetan, maiatzak 19, Herriko Ostatuan.

zalain
RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

zalain

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak

Herriko erria • LERAKA
Tel: 948 637 266 • 907 226 891 • Fax: 948 637 511

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

HEZKUNTZA → BERPIZTE KARDIOPULMONARRA ETA LEHEN SOROSPENAK

Mediku eta erizainekin doako bi ikastaro egingen dituzte gurasoek

Eskolak eta Guraso Elkarateak antolatu dituzte

Arkaitz MINDEGIA

Pulupa eskolak eta Guraso Elkarateak bi ikastaro antolatu dituzte hilaren 15 eta 24rako. Lehenbiziko ikastaroan, berpizte kardiopulmonarraz aritzekoa ziren Donetztebeko osasun zentroko bi medikurekin. Eta bigarren, lehen sorospen ikastaroa da. Kasu honetan, zauriak, erredu-rak, zorriak eta gisakoak daudenean zer egin landuko dute bi erizainekin.

Bi ikastaroez ordutegi bera dute: 16:30etik 18:30era eta biak dohainik izanen dira. Guraso eta animatzen den guztiarendako irekiak daude.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nafarroako frogak eskolan

Eskolako 4.mailako ikasleak froga batzuk egiten ari dira egun hauetan. Nafarroako Gobernutik bidalitako diagnostiko edo kanpoko frogak dira eta matematika, euskara, erdara eta ingeleseko ikasgaietan egiten ari dira. Argazkia joan den ikasturteko ikasleena da, baina erran, aurtengoak azken txanpan sartuak direla.

Buruhandien ikastaroa

Udalaren ekimenez, hasia da buruhandien ikastaroa. Honen bidez buruhandi batzuk sortu nahi dira, gero herriko

bestetan edo ekintzetan erabiltzeko. Asteazken arratsaldetan ematen ari da ikastaroa Ines Gerekabere lagun batekin kاپillar. Nahi duena animatzen ahal da.

Malerrekako Eguna

Maiatzaren 26an Zubietan Malerrekako Eguna ospatuko da eta hori dela eta, ekitaldi ugari egingen dira. Tartean, Ibiltza taldeko dantza-

HONDAKINAK

Traste zaharrak biltzeko telefono berria

TTIPI-TTAPA

Neurri haundiko trasteak biltzeko telefonoa aldatu dute Baztango Udalak, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak eta Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak. Orain, trasteak biltzeko 672 045734-ra deitu behar da.

riek erakustaldia eskainiko dute, eta hori pres-tatzen dabilta orain.

Mus txapelketako finala ere jokatu da, eta horretarako lehenagotik herrietan kanporaketak egiten ari dira. Gurean, joan den asteburuan egitekoak ziren Aurtitz eta Iturengo ostatueta. Lerro hauek idazterakoan ez dugu irabazleen berri-rik izan baina hurrengoan aipatuko dugu.

BERAHONDREA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

ZUBIONDO Jatetxea
Agiasta Karrika
BERA NAFARROA

LAZARTEGIA
948 630 786
Alzate, 19 • BERA

MARTIKO
Martiko PA Caser, s/n.
31791 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625010 Fax: 948 625036
www.martiko.com

DENDA ORDUTEGIA:
asteheneretik ortziratera
08:00etatik 17:00etara

PAGOLA EMBUTIDOS
artesanos desde 1940
Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

BIDASOA
BIDASOA - BERTSIOGIA
BIDASOA - BERTSIOGIA
BIDASOA - BERTSIOGIA
T.F. 859 971 442
BERA

LAZARTEGIA
Tel: 948 631 076 • BERA

ELGORRIAGA

GIZARTEA → IZEN BERRIAK JUNTAN

Bi urteren ondotik Zorroiloak elkartean junta berritu dute

Zazpi kide atera eta bertze horrenbertze berri sartu dira

Mattin LARRALDE

Maiatzeko lehenbiziko asteburuan urteko asanblada orokorra egin zuen Zorroiloak elkarteak. Urteko kontuen berri eman eta egin diren jardueren informazioa eman zen, bertzeak bertze. Hortaz aparte, aurten junta berritza ere tokatu zen. Laurogeita hamahiru kideetik hirurogeita lauk bozkatu zuten.

Zazpi kargu bete behar ziren eta zazpi hautatuak hauek izan ziren: Santos, Paulino, Martixpe, Ainhoa, Ana, Ja-

vier eta Mattin. Baina ez ditugu ahaztu behar azken bi urteetan egondu diren izenak: Maitte, Kris, Manuel, Joxelu, Luzio, Martintxo eta Iñigo. Eskerrak eman behar zaizkie bi urte hauetan egin duten lanagatik, listoia edo muga hagitz goian jarri baitute. Lerro hauen bidez, agur bero bat denon partetik. Eta ongietorria kide berriei, gogoz beterik ikusten dira eta ziur ongi egiten saiatuko direla. Animo denei!

Bortz gaztek Sendotza egin dute

Maiatzaren 5ean bortz gazteren sendotza izan zen: Sara, Iker, Asier, Aritz eta Aitor. Meza herriko koroak alaitua izan zen.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Zorroiloak elkarteak dituen 93 kideetatik 64k eman zuten botoa junta berritzeko egunean.

MALERREKA

EUSKARA → DIRULAGUNTZA

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza deialdia egin du Mankomunitateak

Urtea akitu arte aurkezten ahal dira eskabideak

TIPI-TTAPA

Malerrekan errotuluak euskaraz paratzeko dirulaguntza deialdia egin du Mankomunitateak eta abenduaren 31n akitu-

ko da eskaerak aurkezteko epea. Errotuluak euskaraz jartzen dituzten establezimendu komertzialei (dendak), ostalaritzakoei (ostatuak) eta elkartei dirulaguntzak emanen zaizkie.

Dirulaguntzaren eskabideak eskabide eredu ofiziala behar den moduan beteta, fakturaren kopia, IFKren kopia, erro-

tuluaren justifikazioa (argazkia) eta Malerrekako Mankomunitatearekin bete behar fiskaletan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute Mankomunitatean.

Egitasmo honek 2.000 euroko aurrekontua dauka eta akitu arte emanen dira dirulaguntzak. Euskara hutsean

idatzita dagoen errotulua jartzen dutenei gastuaren erdia ordainduko zaie, 300 euro gehienez. Euskaraz eta erdaraz, elebiz, errotulua jartzen dutenei gastuaren %25 ordainduko zaie, gehienez 150 euro. Kasu honetan, errotuluaren testuan euskarak beti lehentasuna izan beharko du, euskarazko testuak tamai-

naz handiago paratuz edo azpimarratuz. Eta ez dute dirulaguntzarik jasoko soilik izen-abizenak edo toponimoak dituzten errotuluek, ezta gaizki idatziak edo oker gramatikalak dituztenek ere.

Euskara Zerbitzuak aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskainiko die doan errotulua euskaratu nahi dutenei.

KULTURA → ASTE KULTURALAREN BALORAZIOA

Herritar guztiek gozatzeko moduko kultur egunak izan dira

Aisialdia, kirola eta sormena lantzeko aukera izan da

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Lehendabiziko aldia izan arren, aste kulturalak jende andana elkartu du. Lehendabiziko egunean, pasta tailerrean, haur kuadrilla elkartu ziren eta pasta goxoak egiteko aukera izan zuten, baita pasta goxoak dastatzeko ere.

Bigarren egunean, serigrafia tailerrean ere, kamiseta eta galtzetan mota guztietako marrazkiak jartzeko aukera izan zuten, eta neska-mutikoen primeran pasatu zuten.

Talok ere jende aunitz elkartu zuten eta kantu zaharrak kanta-

tzeko ekimenak ere par-tehartze handia izan zuten. Mus txapelketara ere animatu zen jendea eta txapeldunak Iñaki eta Igor izan ziren. Ber-araiek izanen dira Zubie-tan maiatzaren 26an jo-katuko den Malerreka-ko finalean Donamaria ordezkatuko dutenak.

Larunbatean, goi-zean goiz, 40 bat lagun elkartu ziren mendi ibi-laldira joateko. Gauean egin zen bertso afarian ere herritar aunitz bildu zen. Bertso saio polit baten ondotik, besta bi-kaina egiteko aukera ederra izan zen Migel Anjelen laguntzarekin.

Berriz ere eskerrak eman behar dizkiegu Malerrekako Mankomunitateari, IMTri, Donamariako Benta-jatetxe-ari eta Donamariako He-rriko Ostatuari.



ARGAZKIAK: IZASKUN GOÑI
Haur, gazte eta helduek izan dute kultur egunetan ongi pasatzeko aukera.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun
(0034) 948 63 54 58

Gure Haragia
Nuestra Carne

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukook eta fatxadak
tel. 666 235 466

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberitasun eta jubilazio espedientiak
- Bidegaitasun planak eta sumentutak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltiri, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BUREATA: La Yiba, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

TELLETXEA
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritza Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T: 619 418 683
john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

EZKURRA

ERLIJIOA → URTEROKO HITZORDUA

Aurten ere San Rafaelen irudiak ongietorria egin dio Aralarko San Migeli

Migel aingerua datorrenean San Rafaelen irudia elizatik ateratzen duen herri bakarra da Ezkurra

Fernando ETXEBERRIA

Ohiturari segituz, maiatzaren 7an Aralarko aingeruaren bisitaizan genuen herrian. Arratsaldean etorri zen eta On Jesus Sotilen eskuean elizara ailegatu zen momentuan euria hasi zuen. Hainbat herritarrek ongietorria egin zioten atarian, eta ondotik, meza entzun zuten. Musu eta agurrak ere ez zuten hutsik egin.

Honekin lotuta, bada aipatzeko moduko bitxikeria bat. Izan ere, San Migel eta gurutzearen musuaren testigu lana egitera egun honetan San Rafaelen irudia ateratzen dute elizatik. Urte osoan San Migelen bisita hartzen den egunean bakarrik ateratzen da elizatik San Rafael, eta aurten ere horrela izan da.

Elizkizunen ondotik, San Migelen irudia udal txerara eramateko ohitura ere badago, han udal ordezkariak harre- ra egin diezaioten. Aldi honetan, tabernara joan ziren guztiak eta han eman zioten zinegotzi eta alkateek irudiari

musu. Ondotik, udal ordezkariak eta San Migelen irudiarekin etortri- tako guztiak elkarrekin afaldu zuten.

HITZORDU GARRANTZITSUENA

Duela urte asko, San Migelen etorrera herri- tarrendako bisitarik garrantzitsuetariko bat izaten zen. Ia herritar guz- tiak joaten ziren Perrale- kuko mugara, Goizueta- tik zetorren aingeruari ongietorria egitera eta ermitarako bidera aile- gatu arte laguntzen zio- ten kanpai eta suziri ar- tean. Han egoten ziren apaiza eta sakristaua gu- rutze haundi batekin eta elizako beste aingeru baten irudiarekin. Ain- geru eta gurutzearen ar- teko musuaren ondotik, elizari prozesioan joaten ziren herritarrak. Biharamunean, meza izaten zen eta Eratsungo mugaraino laguntzen zioten gero.

Euria aipatu dugula, bada aipatzea merezi du- en beste kontu bat ere. Herriko adinekoen ara- bera, uholdearen pasa- dizoa joan den mende- koa da. Nonbait, garai hartan lehorte haundia omen zegoen eta herri- tarrak uzta galduko zu- ten beldur, urdurituak eta ikaratuak omen zeuden. Hala, behar zuten ura ekartzeko erregutuz egin omen zuten santuarekin prozesioa. Ura eskatu



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian gurutzea eta San Migel eta San Rafaelen irudiak ageri dira, harrera egiterakoan. Beheitikoan udal ordezkariak, San Migelen irudiarekin etorri zirenekin.

bai, baina ez zen nahi zen erantzunik izan, eta diotenez, zenbait lagun elizan sartu ziren gauze- ta irudia hartu eta osta- tuaren ondoan zegoen iturrian sartu omen zu- ten. Santuaren mende- kua euri-erauntsi izuga- rria izan omen zen, bai- na herria maldan dagoe-

nez, ez zen kalte haun- dirik izan.

Mapak eta bideak

Ezkurrako mendi ko- munalen Basoen Anto- lamendu Planak urte ba- tzuk baditu eta arrazoi horregatik, Basartea en- presak eta Nafarroako Gobernuak plan horreta-

ko elementu aipagarrie- nekin mapa osatu dute. Oso garrantzitsua da ho- rrelako mapa bat izatea, nahiz eta borda eta hau- en izenetan akats batzuk aurkitu diren. Dirulagun- tzen bat lortzen bada, xehetasun gehiagorekin beste bat egiteko urrats bat izan daiteke.

APARAN, S.A.

BRINOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate amuntak eta sukaike mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak: esku-erremintak, itabi



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → MAIATZEKO BESTA

Giro ederrean joan da Itur Ondo elkartearen maiatzeko besta

Jazinto eta Urbano izan dira musean irabazle

Amaia eta Arantxa

Urteroko ohiturari eutsiz, maiatzeko lehendabiziko igandean Itur Ondo elkartearen besta eguna izan zen.

Eguerdiaren aitzakia jokatu zuten herritarrek. Alde bateatik, Dolareko Jesus eta Mitxeteneko Jose Luis aritu ziren, eta bestetik, Otxoneko Jazinto eta Maizenekobordako Xabier. Labaiengo plaza hurbildu zirenak gus-tura gelditu ziren aizko-lariak egindako lanarekin gozatuz. Oso lehia polita izan zen eta azkenean, irabazleak Jesus eta Jose Luis izan ziren.

Ondotik, bazkaria egin zen elkartearen giro onean joan zen. 45 lagun elkartu ziren eta gehienak musean aritu ziren bazkal ondoan. Otxoneko Jazinto eta Txispoko Urbanok irabazi zuten mus txapelketa eta azpitxapeldunak Jabier eta Joxe Mari izan ziren. Txapeldunek bina botil ardo irabazi zuten eta azpitxapeldunek bana botila.

Duela hamahiru urte sortu zen Itur Ondo elkarte eta lehendabiziko bazkideen auzolanaren bitartez atera zen aurrera proiektu hau. Geroztik hainbat besta ederren lekuko izan da elkarte eta ekitaldi ugari ere antolatu dira Itur Ondotik: mendi irteerak, aizkora apustuak, Urri-ruko besta, inauteriak, otordu ederrak...



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE ETA AMAIA MINDEGIA

Goitik beheiti, aizkora apustua, bazkaria eta mus txapelketako bikote finalistak.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornoak · edredoi nortikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuonak · toailak

Tafalla, 13 · IRLINEA · 948 230 634

Zure etorkizuna, gure erronka

Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.



Telekomunikabide elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika mikroprogramablea



Eraikuntza eta topografia

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Hezkuntzako Lege Organikora egokitua (LOE), Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituena industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik goizez eta bi kurtsotan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egin nahi duten ikasleentzat ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independente batez ziurtatzeko aukera ematen du. Orduetgia ikasleagoaren beharretara egokitzen da, hartara, lana eta bestelako beharrak ikasketarekin tartekatu ahal izanzen ditu ikasleak hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratzuz.

Eleaniztasuna

Eleaniztasuna frantsesez edo ingelesez: zenbait zikloko modulu egin daitezke.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Leonardo da Vinci (Erdi Mailako entzatzat) eta *Erasmus* (Goi Mailako entzatzat) programen bitartez, ikasleek Europar Batasuneko enpresetan praktikak egiteko aukera dute martxotik ekainera bitarte. Batez beste, urtean 15 beka izaten dira eta, hala, Bidasoa Institutuko ikasleek aukera dute nazioartean barneratzeko, atzerriko hizkuntzan duten maila hobetzeko eta Europako industria ezagutzeko.



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20308 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

Kokapena:
Elizatxo, 10
Irungo erdigunetik
300 metrora,
Elizatxo etorbidea
eta Aduana kalearen
bidegurutzean.



ATE IREKIEN ASTEA

1. Jardunaldia

ERDI MAILA: Maiatzak 21, astelehena, 18:30ean
GOI MAILA: Maiatzak 22, asteartea, 18:30ean
ARRETA PERTSONALIZATUA:
Maiatzak 23, 24 eta 25, 17:00 - 20:00

2. Jardunaldia

Ekainak 2, larunbata, 10:00 - 13:30

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta segimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enpresetatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzaitzaren eta autoenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001 ean ekimena abiatu zenetik hamabost enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresen prestakuntza-beharren diagnostikoa

2012 / 2013 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza osoa, egunez

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza *

* **Gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa**

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

INSKRIPZIO EPEA
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra
biak barne

MATRIKULA EPEA
Uztailaren 5etik 11ra
biak barne

NARBARTE

ATZERA BEGIRA → GARAI BATEKO JAUREGIAK

Etxandiko eraikina: jauregia zena pareta bakar batean gelditua

Herriko plaza jauregi hartako harriekin egina da

Martin BERTIZ

Bertze garai batean murgilduko gara, jauntxo eta jauregien garailetan, baina horretarako atzera begiratu beharra dago, mende pare bat atzera, hain zuzen. Gure inguruan, bertze garai bateko eraikinak ikusten ahal ditugu, historiaz beterikoak; abentura liburu ederren orriak edertu beteko lituzketenak.

Baina oraingoan, ikusten ez den jauregi batean jarriko dugu arreta: Etxandiko jauregian. Tipulatzeko auzoan jaio eta hil egin zen jauregia eta gaur egun, izan zena-ren pareta triste eta luze bat bakarrik gelditzen da.

Jauregi honen nondik norakoak jakiteko Juan Agustin de Ustariz Etxandiko markesari erreparatu behar diogu, bera izan baitzen jauregia eraikitzeke agindua eman zuena. Juan Agustin 1742tik Cadizen bizi zen eta merkataritza zuen labide. Markesadoa eta Santigoko jantzia lortu zituenean, Tipulatzeko auzoan jauregi bat eraikitzea erabaki zuen, hau da, bere sortetxearen ondoan. Horretarako botere guztiak Lakoizketako Anbrosiori eman zizkion, eraikinaren gidaritzaz arduratzeko. 1764an Anbrosio, non-

bait, ez zegoen conforme harginaren lanarekin eta auzitegitara jo zuen. Epaiketaren erabakia lruñeko hargin nagusia peritu izendatzea izan zen eta eraikuntzak aitzine-ra segitu zuen.

Garai berean, Juan Agustinen Reparatzeko lehengusuak bere jauregia eraikitzeke agindu zuen, baina Oieregin. Bi eraikinak berdinak ziren, altuera, balkoi, dorre eta norabide berarekin, baina dirudienez, Narbarte-koa pixka bat handiagoa zen, solairuko 580 metro koadroekin.

Behin jauregia akuituta, jabea noiz etorri esperoan zeudenean, Anbrosiok kaperau bat izendatu zuen jauregirako: Juan Iribarren. Juan hogeit bat urtez egon zen markesaren esperoan, baina ez zen sekula agertu eta bera izan zen jauregiak izan zuen bizilagun ezagun bakarra.

Juan Agustin 1781-ean hil zen eta jauregia Migel Josephren eskutara ailegatu zen herentziaz. Baina Migelek ez zuen inolako interesik bere aitaren jauregiarekin, ez aitaren sorterriaz, ezta markesadoaren nondik norakoez ere. Migelek jauregiarekin egin zuen bakarra Lakoizketako Juan Bautistari, Anbrosioren semeari, botereak ematea izan zen.

1793an, soldadu frantsesek jauregi barranean harrapatu zuten guztia eraman eta su eman zioten, nagusia Indian ze-



Etxandiko jauregia Tipulatzeko auzoan zegoen.

ARGAZKIA: MARTIN BERTIZEK UTZITAKOA



Reparatzeko jauregia Etxandikoaren hagitz antzekoa da.

ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ



Doneztebeko Errotaldea etxea Etxandiko jauregiaren harriekin egina da.

ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

goela. Narbarte, bitartean, bi urtez konbentzioko armadak okupatua egon zen eta luze gabe, Napoleonen aldekoek egon zuten. Gerra Karlita ailegatzeko jauregiak ia ez zen deus dezentrik gelditzen.

Migel Joseph 1820an hil zen eta Juan Bautista Lakoizketarrak alabei idatzi zien jauregiaren egunerokoaz. Alabek herentzia banatu zuten eta titulua Ustarizko Maria Luisak heredatu zuen eta zelaia eta jauregitik gelditzen zena Francisca de Paula Ustaritzendako

izan zen. Paulak testamentuaren bidez, Migel Mari Lakoizketakoari eman zion.

Denborarekin, jauregia Arribilagako etxearen eskuetara ailegatu zen eta gelditzen ziren pareta zaharrak lurrera bota zituzten; harri onak Doneztebeko Errotaldea etxea eraikitzeke saldu zituzten eta gainerako harriarekin Narbarte-ko plaza egin zuten.

Gaur egun, Tipulatzetik pasatzean, ez gara ohartzen Etxandiko txokoak historiaz beterik daudela, denboraren poderioz isildu diren istorioz beteak.

Jaunartzeak

Maiatzaren 6an bortz gaztetxok hartu zuten Jaunartzea lehenengoz.



AISIALDIA → EGUN OSOKO BESTA GIROAN

Eskulangintza eguna eginen da lehenbiziko aldiz ekainaren 16an

Bittoriano Arzuagari omenaldia eginen zaio

Joseba URROTZ

Besta egun berezi bat antolatzen ari dira herrian. Denok ezagutzen dugu bertako eskulangilea den Bittoriano Arzuaga, artilea eskuz egiten du eta herriz-herriz ibiltzen da. Hari hori tiraka, betiko eskulangintza ikus-teaz gain, bere etorkizunari ere lagundu nahi zaio, ahal den neurrian eskulangintza berria ere indartuz. Eta helburu horrekin,

eskulangintza azoka antolatuko da ekainaren 16an, inguruko lan eta ekoizpenekin.

Artilea da Bittorianok lantzen duena eta hortaz, ardiaren inguruan bertze erakusketarik ere izanen da, aspaldiko moduan ilea moztea, erraterako. Hau horrela izanda, bidezkoa da Bittorianori omenaldi bat egitea, lan horri eusteagatik eta gure herria kanpoan pixka bat ezagutzera emateagatik.

Gainera, berrikuntzaren haritik, artista ezagun bat ere hemen izatea espero dute antolatzailleek, betiko eskulana



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urte aunitz daramatza Bittorianok artilea lantzen eta oraindik ere segitzen du.

eta artearen arteko uztarketa bat egiteko asmoz. Eta noski, besta girorik ere ez da faltako, bazka-

ri, musika, bertsolari eta abarrekin. Edozein moduz, hurrengo aleren batean izanen duzue egita-

rau zehatzaren berri, baina bitartean, kontuan hartu egun hori zuen agendan!

LEGASA

TURISMOA → AUZOLANEAN MOLDATUA

45 lagunendako tokia du Kattalin izena paratu dioten aterpeak

Aterpeaz arduratzeko errentan hartzeko aukera emanen da denborarekin

TTIPI-TTAPA

Aitzineko alean aipatu bezala, apirilaren 28an herri bilera bat egin zen aterpearen inguru-

ko erabakiak hartzeko.

Hasteko izena erabaki zen: Kattalin aterpea. Aipatu garai batean, herriko patroia Kattalin zela eta bere omenez, izen hau jartzea erabaki zutela bildu zirenen artean.

Honetaz aparte, bertze erabaki batzuk ere hartu ziren. Batetik, hurrengo auzolanetan aterpea margotuko dela dena akitu bitarte. Bertze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Larunbatetan auzolanean ari dira aterpea margotzen.

tik, errentan hartzeko aterako dela. Hala ere, baldintza batzuk izanen dira errentan hartzeko: hartzaileak aterpea mobleztatu beharko du; hau da, sukaldea, ostaltuko barra, oheak, mahaiak, aulkiak... bere esku geldituko dira. Ho-

nen truke, alokairua dohainik izanen du oraindik erabaki ez den hainbat urtetarako. Dena den, mantenimenduko gastuak hartzaileak ordaindu beharko ditu.

Kattalin aterpeak 450 metro koadro inguru dituzte eta 45 lagun hartzeko

prestaturiko dago. Bortz logela eta bortz komun, igogailua, sabaian bi trasteleku, sukaldea, barra eta egongela bat jartzeko tokia dauka.

Beraz, hurrengo larunbatetan auzolanak izanen dira aterpea pintatzetik akitu arte.

GIZARTEA

ZERBITZUAK → UDAL ETA MANKOMUNITATEEKIN AKORDIOA LORTU DU IRATXEK

Iraxte Kontsumitzaileen elkarteak zerbitzua eskaintzen segitzen du

Eskualdeko udal gehienek bere gain hartu dute Iratxeren zerbitzua eskaintzearen gastua

TTIPI-TTAPA

Joan den abendura bitarte, Iraxte Kontsumitzaileen Elkarteak kontsumitzaileentzako 72 informazio bulego kudeatzen zituen Nafarroan eta udalen laguntzari esker, kontsumitzaileen kezka dohainik artatzen zituzten. Nafarroako Gobernu Kontsumo Zerbitzuak ekimen honetarako 84.000 euro bideratzen zituen eta dirua udalen artean banatzen zen.

Aurtengorako ere, Nafarroako Parlamentuak kopuru bera onartu zuen, baina Kontsumo Zerbitzuak diru hori udalei ez ematea erabaki du, eta diru hori zazpi udaletan Kontsumo Zerbitzuaren bule-

goak zabaltzeko erabiltzea. Eta erabaki horrikin haserre agertu da Iraxte Kontsumitzaileen Elkarteak, eta Gobernu Kontsumo Zerbitzuaren jarrera salatu du: «kontsumitzaileen informazio bulegoetako laguntza ekonomikoa kentzeaz gain, bulegoak ixten saiatu da».

Murrizketak murrizketa, eskualdeko udal eta mankomunitateek zerbitzuaren gastua euren gain hartu eta Iratxeren zerbitzua eskaintzen segitzea erabaki dute. Mikel Bezunartea Iraxteko ordezkariak baieztatu digunez, «Mendialdean eta Iruñerrian zerbitzuak berdin segitzen du». Gisa berean, gaineratu du «Leitza, Baztan eta Bortzirietako udalek bere gain hartu dutela zerbitzuaren gastu guztia». Aldiz, Malerrekako Mankomunitatearekin bertzelako hitzarmena sinatu du Iraxte Elkarteak: «gastuaren erdia Mankomunitateak ordaintzen du eta bertze erdia gure

TOKIA	HURRENGO HITZORDUAK	
BERA	Maiatzak 18	Ekainak 15
LESAKA	Maiatzak 4	Ekainak 1
MALERREKA	Maiatzak 4 eta 18	Ekainak 1 eta 15
BAZTAN	Maiatzak 10 eta 24	Ekainak 14 eta 28
LEITZA	Maiatzak 2 eta 16	Ekainak 6 eta 20



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mikel Bezunartea Iraxte Kontsumitzaileen Elkartearen kidea etortzen da eskualeko udal batzuetara zerbitzua eskaintzera eta gainerakoetara Naiara.

gain hartu dugu». Udalek Iratxeren zerbitzuaren alde egin izana nabarmendu digu Bezunarteari: «azpimarratzekoa da Donezteben eta Altsasun Gobernu Kontsumo Zerbitzuak kontsumo bulegoak za-

baldu dituela, baina hala ere, udalek gure zerbitzuarekin segitu nahi izan dute. Izan ere, zerbitzu diferentek dira, eta Kontsumo Saila aspalditik dugu Nafarroan eta badakigu zer egiten duen, zer egiten ahal

duen eta politikoki zer interesatzen ahal zaion. Eta gu, kontsumitzaile elkarte garen aldetik, gure helburuak eta jarduerak arrotz diferentek dira eta horregatik egin dute udalek gure aldeko apustua».

Alustiza
%10eko
DESKONTUA
300tik geroako
gastuan

ttipi-ttapa
Auzoartza, 19
33001
948 635 458
kulturrari@ttipi.net
www.ttipi.net
www.austriban.com

TXARTEL DOBLEAK (8 alde)
Kartulina berezia 300gr + koloretan + BEZ barne
500
bisita txartel
127€
100 bisita 114€ • 200 bisita 117€ • 300 bisita 167€

TXARTELAK (8 alde)
Kartulina berezia 400gr + koloretan + BEZ barne
500
bisita txartel
115€
100 bisita 71€ • 200 bisita 88€ • 300 bisita 154€

KIROLA → MAIATZAREN 27AN

Krosa bukatzen duten lehen gizon eta emakumezko herritarrek sariak izanen dituzte

Sailkapen orokorrean hiru lehenak sarituko dira

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, aspaldiko partez, herri krosa antolatu du Umore Onak Elkarteak maiatzaren 27rako. Aurreko alean aipatu genituen xehetasun gehienak, ez ordea, sariak. Izan ere, gizonezko eta emakumezkoetan, sailkapen orokorrean lehenengo hiru postuetan gelditzen direnek sariak izanen dituzte: lehenak txapela, bildotsa eta botil ardoa; bigarrenak bi txuleta eta botil ardoa eta hirugarrenak baserriko oilaskoa eta ardo botila.

Horiez gain, helmugaratzen diren lehenengo gizonezko eta emakumezko herritarrek bakoitzak trofeoa, bildotsa eta botil ardoa hartuko dituzte. Gogoan izan, Internetez aurretik eman daitekeen izena www.kirolprobak.com webgunean edo bestela, egun berean. Xehetasun gehiago web orri horretan.

Txondorraren Eguna

Maiatzaren 26an bi urtetik behin egiten duten Txondorraren Eguna eginen dute Lizarra aldeko Antzin herrian eta hara joan eta Zagi dantza dantzatzeko gonbidapena jaso dute herritarrek. Gonbiteari baietz esan eta han izanen dira.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

San Migelen bisita

Ohiturari segituz, Aralarko San Migelek aurten ere bisita egin du eta herritarrek harrera eginez eman zioten ongietorria santuari.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Fiesta ederrak Txino auzoan

Aurtengoan ere giro ederrean joan dira Txino auzoko fiestak. Beharbada, joan den urtean baino jende gutxiago ibili zen, baina horrek ez zuen giroa zapuztu. Bazkarian 200 lagun inguru elkartu ziren eta arratsaldean ere jende asko ibili zen dantzan. Guardiazibilek ere ez zuten fiestan parte hartu gabe gelditu nahi izan... Gainerakoan, goizaldera arte iraun zuen jai giroak.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Zubimuxu inauguratua

Ofizialki apirilaren 28an inauguratu zuten Zubimuxu aterpea. Eguerdian luntxa eskaini zen eta Aurreskua ere dantzatu zen euripean, aterpearen atarian. Gero, aterpeko ataburuan ikurrinaz estalia zegoen egurrezko eskulana agertarazi eta aterpea ikusteko aukera izan zen. Ekitaldian izan ziren Idoia Legarreta obrako arkitektoa, Carmen Oroz Nafarroako Gobernuko ordezkaria, Mitxel Tomasena obrako zuzendari teknikoa eta Miel Joxe Lekuona aurreko alkatea eta Pablo Miranda gaur egungo alkatea, baita Irune Zabala aterpearen kudeaketaz arduratuko dena ere, eta berak erakutsi zituen instalazioak. Beste hainbat udal ordezkari eta herritar ere bildu ziren.

LEITZA

KULTURA → XXXV. KULTUR AROA

Txistulari Eguna eta XXXIV. aldiz eskulangintza azoka eginen dira Kultur Aroaren barne

Ekainaren 9ra arte ia egunero izanen dira ekitaldiak

JM BARRIOLA

Hastear da XXXV. Kultur Aroa. 35 urte Leitzako Kultur Taldeak, gaur egun ALKE, kultur jarduerak eta egitarauak lantzen eta eskaintzen. Lehen eta orain ere dozenaka boluntarioen lanari esker eta herritarren laguntzarekin.

MAIATZAK 18

• Ritxi Lizartzarekin *hitanoa eta generoa* hitzaldia 20:00etan Aurreran.

MAIATZAK 19

• Goizean, txirindularitza eta eskalada haurrentzat Mendibil Taldearen eskutik.
• Arratsaldean, Gazte Eguna. Atekabeltzen ekimen eta kontzertuak.

MAIATZAK 20

• Organo kontzertua elizan 12:00etan, Iosu Larunbe eta Raul del Torooren ikasleekin.
• 19:00etan *Hil arte bizi* antzezlan zinemaren.

MAIATZAK 21

• *Gustatzen zait... Ausartuko naiz, erotika aurkituz* sexuari buruz tailerra Atekabeltzen Sonia Mendez eta Irantzu Eskuderorekin, 20:00etan.

MAIATZAK 22

• *Marta Maitea* Jose Mari

Sestorainek itzulitako liburuen aurkezpena 19:30ean liburutegian.

MAIATZAK 23

• *Sorginen ehiza* hitzaldia Atekabeltzen 20:00etan, Amaia Nausirekin.

MAIATZAK 24

• *1512ko konkista euskaldunen historian* hitzaldia Beñi Agirrerekin, 10:00etan institutuan.
• *Nora goaz? Biharko gizarateaz, etorkizuneko bizimoduaz* Aurreran hitzaldia Joseba Azkaragarekin, 20:00etan.

MAIATZAK 25

• Erleta eskolako haurrekin, dantza garaikidea eta antzerkia zinemaren Josune Zabala eta Jone Gorostartzuk zuzenduta, 17:30ean.
• 00:00etan *La jodederen* kontzertua Torrean.

MAIATZAK 26

• Donostia-Orio mendi ateraldia 07:30ean, Mendi Taldearekin.
• Egun osoan Txistulari Eguna: 10:00etan harre-
ra plazan, 10:15ean auzoetara kalejira, 11:00etan gosaria, 12:30ean kalejira nagusia, 13:00etan ingurutxo plaza, 14:00etan txistularien bazkaria Atekabeltzen, 18:00etan txistu kale animazioa.

MAIATZAK 27

• 10:00etatik 19:00etara XXXIV. eskulangintza azoka plazan.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Gorritiko gazteluraino mendi martxa

Apirilaren 28an Gorritiko gaztelua zegoen tokiraino, gaur egun Santa Barbara basaeliza dagoen lekuan, Leitza, Areso, Larraun, Lekunberri eta Araitz inguruetatik mendiz joan ziren hainbat bizilagun. Oso eguraldi txarra egin zuen arren, euria eta hotza, 55 bat lagun azaldu ziren tontorrean 12:00etako ekitaldira. Eskualdeko Nafarroa Bizirik osatzen duten partaideak antolatutako ekitaldia egin zen bertan, orotarria ezarri eta dantzariak aureskua dantzatu zuten. Ondoren, Gorritiko frontoian bazkaldu zuten horietako batzuk. Hau guztia Nafarroa konkistatua izan zen 500. urteurrena dela eta Nafarroa osoan antolatzen ari diren ekitalditako bat izan zen.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Txukunketak Plazaola geltokian

Plazaola geltokiko inguruak txukuntzen ari da Udala. Sasi eta zaborrak hartzen ari zen azken urteetan eta geltoki zaharra gainbehera zetorren. Nafarroako Gobernuak kanpotik konpondu zuen eta barrutik konpontzeko asmoak daude. Bitartean inguru itxusten zuten zabor, eskonbro eta harri pilak kendu eta txukundu eta lore eta zuhaitzak landatu dituzte, ondoren mahaiak eta eserlekuak jartzeko asmoarekin.

EKAINAK 4

• Txondorra biztea Ixkibarren, 18:00etan.

EKAINAK 5-6-7

• 20:00etan I. Mendia, kirola eta abenturaren zinemaldia Peritzan.

EKAINAK 8-9

• Sagardo Eguna.

ALKE taldeak, iaz bezala, eskulan sorta baten zozketa eginen du azokaren egunean, eta herri-



tarrei deialdia luzatu nahie, txartelak erosten, antolakuntzan lagun-

tzeko eta ekitaldi guztietan parte hartzeko, aro ederra egin dezagun.

UDALA → 5,5 TONA BANATUKO DIRA

Maiatzaren 21ean bukatuko da egur loteak eskatzeko epea

Interesatuek udaletxean apuntatu behar dute

Juana Mari SAIZAR

Egur loteak hartzeko epea irekita egonen da maiatzaren 21era arte eta udaletxean apuntatu behar da. Joan den ur-

tean bezala, hiru aukera egongo dira lotea hartzerakoan; etxeraino ekartzea, pistaraino ateratzea edo bakoitzak berea botatzea.

Bestalde, iaz lau tonako egur lotea izan bazen ere, justu xamar iritsi zen eta aurten 5,5 tonara igo da kopurua, eta horrela prezioa ere pixka bat igo da. Azkenik, esan, pis-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Jose Manuel eta Mikel txapeldun

Pake Tokiko urteroko mus txapelketa bukatutzat jo zen maiatzaren 5ean. Aurten goan herrian dagoeneko beterano bihurtu diren Jose Manuel eta Mikel Olazabalek lortu zuten txapela beste behin. Beraz zorionak!

tan geratzen diren loteak zozketatu egingo direla maiatzaren 22tik 25era.

Astamelako zubia

Autobia egin zenean As-

tamelako zubia ez ziztaion nahiko altuera eman kamioi handiak azpitik pasatzeko eta horregatik, orain maila jaisten ari dira. Izan ere,

Gañarbe parean Udalak pagoa saldu dio Leitza-ko Daniel Zabaletari.

Konkista hizpide

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena dela eta, herrian hitzaldia eskaini zuen Nabarraldeko kide den Anjel Rekaldek. Nahiko jende gerturatu zen eta bildutakoak oso gustora sentitu ziren, gai aberasgarria eta ezezaguna baitzen askorentzako. Udaletxearen beheko solairuan, aretoan, panel batzuk ere jarri zituzten konkistaren etapak azalduz, eta oraindik ere ikusgai daude.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Olazabal herritarren txapeldun

Berrito ere Mikel Olazabal dugu aipagai, oraingoan binakako pilota txapelketaren harira. Apirilaren 28an jotzatutako finala galdu arren, herritarren babes faltarik ez zuen izan argazkian ongi ikusten den bezala.

LEITZA

BERDINTASUNA → LEITZALDEKO BILGUNE FEMINISTA ETA LAB SINDIKATUA ELKARLANEAN

Parekidetasuna lortzeko bidean aurten ere curriculumak bildu dituzte

Bukatu da curriculumak aurkezteko epea

TTIPI-TTAPA/JM BARRIOLA

Joan den urteko kanpainak izan zuen emaitza ona ikusita, aurten

ere emakumezkoen curriculumak bildu dituzte Leitzaldeko Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak elkarlanean. Iazko lanaren ondorio, Sarrion emakumeak kontratatzen hasi dira eskulanetarako, baina Bilgune Feministatik adierazi dutenez, «hau ez da

amaitu. Oraindik, lantegian bertan parekidetasuna lortze aldera lana dago egiteko, bai enpresa barnean eta bai kanpoan ere». Horregatik erabaki zuten aurten berriz curriculumak biltzea. Maiatzaren 11n bukatu zen aurkezteko epea eta behin horiek

jasota, LABen bidez enpresan kontratazioaz arduratzen direnei entregatu zaizkie.

Auzolanak

Urtero moduan, DBH3ko ikasleek ikasbidaia egiteko dirulaguntzaren truke, auzolanak egingen dituzte herrian.

Hainbat mendi eta bide bazterretatik garbiketak egin eta zaborrak jaso eta erretiratu dituzte. Honekin Udalak biztanleak kontzientziatu nahi ditu, mendietan garbitzailerik ez baita aritzen eta guztion artean mantendu behar baititugu txukunak gure inguruak.

BAZTAN

AISSIALDIA → EUSKARA ZERBITZUAREN ESKUTIK

Udako jostaldian izena emateko epea laster zabalik

Oronoz, Erratzu, Elizondo eta Berroetan eskainiko dira

TIPI-TTAPA

Euskara eta aisialdia uztartuz, aurten ere udako jostaldia antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako. Uztailean eta abuztuan lau txanda eskainiko dira, 10:00etatik 13:00etara.

Uztailaren 2tik 13ra Oronozen eskainiko da udako jostaldia, uztailearen 16tik 27ra Erratzun, uztailearen 30etik abuztuaren 10era Elizondon eta abuztuaren 13tik 24ra Berroetan. Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehenatasuna bi aste au-

keratzen dutenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute.

Helburuak ere argiak dira. Alde batetik, neska-mutikoei euskaraz jolastea nahi dute antolatzaileek, eta haurren arteko harremanak euskaraz bultzatu. Gisa berean, haurrek Baztango kultura eta natura euskaraz ezagutzea nahi dute eta ingurugiroarekiko jarraitasun positiboak ere sustatu nahi dira. Eta hori guztia, joko, eskulan, tailer, txango eta kirolaren bitartez egingen dute.

IZEN-EMATEA

Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra eman behar da izena, 10:00etatik 13:30era, 948 277620ra deituta. Txanda bakoitzeko prezioa 60 eurokoa da, baina fami-



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Kantari gaztetxoak Lesakan

Emanaldi gehiago eskaintzen segitzen du Elizondoko Abesbatza Tikiak. Maiatzaren 5ean, Lesakan izan ziren, eta Lesakako Giltzarri Ttikirekin ere abestu zuten.

lia ugaria baldin bada edo txandan anai-arreba bat baino gehiago baldin bada, 50 euro. Aste bakarra aukeratzekotan, 30 euro kostako da.

UEUko ikastaroa

Udako Euskal Unibertsitatean udan antolatzen dituen ikastaroen barne, aurten *Nafarroaren konkista, iragana eta oraina* izeneko hiru eguneko ikastaroa antolatu du uztailearen 16tik 18rat. Tarteko egunetan, uztaileak 17, ikastaroa Baztanen egingen da eta Udale-

tik adierazi dutenez, baztandar guztiak gonbidatuak daude Arizkunenean egingen diren hitzaldi-dietarat eta Amaiurrerat egingen den bisitarat.

Hau da uztailearen 17ko egitaraua:

- 10:00-11:30: *Nafarroaren konkista eta gaztelar anexioa* (1512-1515) hizpide Arizkunenean, Roldan Jimeno Aranguren irakaslearekin.
- 11:30-12:00: atsedena.
- 12:00-13:30: *Berreskuratze saioretatik Amaiurko gudura* (1516-1521) hizpide Arizkunenean,

Joseba Asiron Saez irakaslearekin.

- 13:30-15:30: bazkaltzeko tartea.
- 16:00-16:30: Amaiurko gazteluaren indusketen azken emaitzak aurkez-tuko ditu Juantxo Agirre Mauleonek Otsondo Elkartean.
- 16:30-17:30: Amaiurko Gaztelura bisita Agirre Mauleonekin.

Hiru eguneko ikastaroan izena emateko epea zabalik dago baina erran, Baztango saioretarat joateko ez dela izena eman beharrik.

UDAKO 2012 JOSTALDIA

BAZTANen 2012ko uztailean eta abuztuan 3 - 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako

Anbulatorioa
Baztango Udala
Euskara Zerbitzua

NOTA: Uztailean eta abuztuan, goizeko 10:00etatik 13:00etara

TXANDAK:

- 1- Uztailearen 2tik 13ra | ORNOZEN (Kodea OR)
- 2- Uztailearen 16tik 27ra | ERRATZUN (Kodea ER)
- 3- Uztailearen 30etik abuztuaren 10era | ELIZONDON (Kodea EL)
- 4- Abuztuaren 13tik 24ra | BERROETAN (Kodea BE)

Mila bakarra ere egin daiteke, baina lehenbaituz, 10:00etatik 13:00etara eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute!

HELBURUAK:

- Euskaraz jolastea
- Baztango haurren arteko harremanak euskaraz bultzatzea.
- Baztango kultura eta natura euskaraz ezagutzea.
- Haurren garapen pertsonala laguntzea.
- Ingurugiroarekiko jarrera positiboak sustatzea.

JARDUERAK:

Jokoak, eskulanak, tailerak, ibertziak, buztina, antzerkia... I, txangoak, kirola...

PREZIOA:

40€ txandako | 50€ familia ugaria bada edo txandan anai-arreba bat baino gehiago badira. | 30€ aste bakarra.

IZEN EMATEA:

Telefonoz Dindia Fundazioan Tel.: 948 27 76 20.
Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra, goizeko 10:00etatik 13:00etara.
Ordainketa egin baino lehen izena emateko dugu.
Eta urdaituta egitarauan haurren izena eta kodea jarri.
Kantu zik. Itasformakoa KULTA. CANI 3054 0104 A1 9142673859.
Ordaintzeko azken eguna: ekainaren 4a.

AURKEZTU BEHARREKOA:

Familia ugariaren tartela, behar izanez gero, Italoa Elsak!

...HORI GUZTIA EUSKARAZ!

BESTAK → MAIATZAREN 25ETIK 28RA

'El conquistador' saioko partaideek nor baino nor ariko dira Berroetan

Xegonek eta Koldo Pozuetak ere desafioa jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Berroetako Mendekoste bestak ere hurbiltzen ari dira, maiatzaren 25etik 28ra izanen dira eta aurten ere ekitaldi aski bereziekin hornitu dute egitaraua:

ORTZILERIA, MAIATZAK 25 BEZPERA

- 20:00: suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30: txopo goratzea eta herriko trikitilariak.
- 21:00: Mutildantzak.
- 21:30: Baztan-Zopak (Txartelak Maialen/Andoni edo Kortarixarren).
- 00:00: dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

LAUNBETA, MAIATZAK 26 HAURREN EGUNE

- 12:00: Leurtza Abentura: puzgarriak, segway, discgolf...
- 16:00: Leurtza Abentura: puzgarriak, segway, laser paintball, arku tiroketa...

- 19:30: Patagoniakoen arteko lehia: Julian Iantzi eta aurtengo edizioko partehartzaileak nor baino nor ariko dira. Aitzinetik eta ondotik batukada.
- 21:30: herri afaria (txartelak salgai Alaitz/Asier edo Kortarixarren).
- 00:00: dantzaldia SANTXOTENArekin.
- Ondotik: Jeimon Teurk Band.

IGENDIA, MAIATZAK 27 MENDEKOSTE EGUNE

- 12:00: Meza Nagusia Gaztelu taldearekin.
- 13:00: hamaiketakoak plazan.
- 13:30: pilota partidak.
- 17:45: Baztango dantzari tikiak.
- 18:30: Xegone eta Koldo Pozuetaren arteko desafioa.
- 20:30: JALISKOrekin dantzaldia.
- 22:00: xinger jatea SANTXOTENArekin.

ASTELEHENA, MAIATZAK 28 ZIKIRO EGUNE

- 11:00: XXXIX. bizikleta itzulia.
- 12:00: mus txapelketa.
- 14:30: zikiro jatea

- SANTXOTENArekin.
- 18:30: asto karrera.
- 19:30: herritarren arteko futbol partida.
- 21:00: xinger jatea SANTXOTENArekin.
- 22:00: Gaixoa ni.

'Nafar estatua gogoan' Tolosara

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena dela eta, besta egun haundia antolatu dute Tolosan (Gipuzkoa) maiatzaren 26-rako eta baztandarrak gonbidatu egin dituzte. Gainera, goizean Tolosako udaletxean Baztango Udalarri eta Amaiurko herriari harrera egingen diote eta ondotik, haur parke bati *Amaiur parkea* paratuko diote izena. Gainerakoan, egun guztiko besta izanen da gaitero, Musika Banda, fanfarre eta txarangarekin. Eguerdian herri bazkaria egingen da, arratsaldean dantzak izanen dira eta gauz kontzertuak Erru Gabe, Kaskezur eta Ufestuek taldeekin.

Harat joateko autobusa antolatu da: Amaiurtik 09:00etan aterako da

eta 09:15ean Elizondotik. Autobuserako eta bazkariarako izena Amaiurko Santxonean eta Elizondoko Fantxiken eman behar da. Tolosatik 18:30ean abiatuko dira.

Elizondoko kartel lehiaketa

Santio bestetako kartel lehiaketa jarri du martxan Elizondoko Herriak. *Santioak 2012* testua izan beharko du eta 50x70 zentimetroko neurriak.

Lanak Elizondoko Herriko Etxeko buzoian sartu beharko dira, edo udaletxeko harreraren utzi ekainaren 1eko 12:00 baino lehen. Posta arruntaz bidaltzekotan, maiatzaren 28a baino lehen helbide honetara igorri behar dira: *Herriko Etxea, Jaime Urrutia 4, 31.700 Elizondo*. Erabakia ekainaren 5ean jakinaraziko da eta irabazleak 300 euro eta zikiro-jaterako bi txartel jasoko ditu.



ARGAZKIA: BAZTANDARRAREN BILTZARRA

Baztandarren Biltzarreko kartela

Irudian duzuen horixe izanen da aurtengo Baztandarren Biltzarra besta iragarriko duen kartela. Leitzako Aingeru Zabaleta Alsuarena da.

Okindegia *Jatetxea*

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)

Espezialitateak parrillan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!

Ordok Industrialdea

Tfn: 948 453 403

31713 ARIZKUN

Pierresuea

OSTATU - JATETXEA

Jaki tipikoak - Etxeko giroa

Herriko Etxea - Tfn: 948 052 043

ONDORZ - MUGAIII

BAZTAN

KULTURA → BAZTANGO BERTSO ESZOLAREN ESZKUTIK

Nafarroako Bertso Eskolen Eguna Elizondon eginen da ekainaren 2an

Bertso Astearen barne antolatu dute Bota Eguna

ro kostako da bazkaria eta lo egiteko lekuarekin 30 euro.

Elizondoko eskolako gurasoak kezkatuak

Nafarroako Gobernuak hezkuntzan egin nahi dituen murrizketen aitzinean, kezkatua agertu da Elizondoko San Francisco Jabier Eskolako Guraso Elkarteak. Murrizketa neurriek eskolan «arras ondorio negatibok» izanen dituztela usate dute gurasoek, eta beraz, «gure seme-alaben heziketan» ere bai. Iribas hezkuntza kontseilariari ere zuzendu dira beraien kezka azalduz eta neurriak ez aplikatzeko eskatuz. Eta horrez gain, joan den astean Elizondoko eskolako irakasleekin hamar minutuko kontzentrazioak egin zituzten eskola aitzinean.

TTIPI-TTAPA

Bertsolaritzaz gozatzeko, Bertso Astea antolatu dute Baztango Bertso Eskolako lagunek. Horren barne, hiru ekitaldi prestatu dituzte: bi hitzaldi, maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean, eta astea boro bilduko duen besta egun bat, Nafarroako Bertso Eskolen Eguna edo Bota Eguna ekainaren 2an.

Maiatzaren 25ean, Arkaitz Goikoetxearekin solasaldia izanen da Arizkunenean, 20:00etan. *Bertso-eskola eredu baten erakustaldia* izanen du hizpide. Ekainaren 1ean, toki eta ordu berean, Karlos Aizpuruak eskainiko du solasaldia: *Bertso-gintzan aritzeko zenbait gako: etxean lantzekoak*.

Azkenik, Nafarroako bertso eskolak elkartuko dituen eguna ekainaren 2a izanen da. 12:00etan triki-bertso poteoa eginen da *Komunetik komunerat* lelopean. Elizondoko plazatik abiatuko dira. Eta 14:30ean bazkaria eginen da Kortarixarren. Ondotik bertso eskolek prestatutakoak entzungai eta ikusgai izanen dira.

Bazkarian edozeinek parte har dezake eta aski da xabimaia@gmail.com helbidera idaztea edo 620 023799ra deitzea. 18 eu-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Maila mantentzea lortu du Baztan futbol talde nagusiak

Lana gogotik egin behar izan zuen, baina Baztan Futbol Talde nagusiak maila mantentzea lortu zuen apirilko hondarreko asteburuko lehian. Amayaren kontrako partida galtzen hasi zen Giltxaurdin, baina Goienetxe eta Motaren golekina, markagailuari buelta ematea eta preferente mailan mantentzea lortu zuen. Kuki Gonzalez ere omenaldia eskaini zion Baztan Futbol Taldeak.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Benito Lertxundiren kontzertu arrakastatsua

Erran beharrik ez dago Euskal Herriko abeslaririk haundienetarikoa dela Benito Lertxundi eta Angel Mariezkurrenaren eskutik, apirilaren 28an Elizondora egindako bisitan hala erakutsi zuen. Elizondoko frontoia bete egin zen kantari oriotarraren kontzertuaz gozatzeko.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ikastetxeak murrizketen kontra

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzan egin nahi dituen murrizketak salatuz, elkarretaratzea egin zuten hainbat eta hainbat lagunek maiatzaren 2an Elizondoko plazan. *Segurtasuna bermatzeko, haur kopurua ez igo, Kalitateko haur eskolen alde, Elizondoko Eskola Publikoa Murrizketarik ez!!!* eta Landa eremuko eskolak ere murrizketen kontra daudela zioten pankartekin atera ziren. Hasmentan elkarretaratzea Haur Eskolak deitua bazen ere, Hezkuntza Batzordetik bideratua gainerako ikastetxetako irakasle, guraso eta haurrek bat egin zuten aldarrikapenarekin.

GIZARTEA → EUSKAL HERRI MAILAKO EKIMENA

Larunbat honetako aldarrikapenekin bat egiteko deia egin du Herrira mugimenduak

Preso eta iheslarien egoera konpontzeko eskatuko dute

te dituztenak ere kalera-zeko, gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko eta frantziar eta espainiar estatuek darabilten espetxe-politika egokitzeko» eskatzen dute.

Baztanen kasuan, «Joxe Miel Gaztelu Elizondoko preso politikoa lehenbailehen Euskal Herriratzeko eta Iñaki Erro elizondarra Almerian gaixo dagoen eta kondena bete duen preso politikoa *de facto* askatzeko» exijitu du Baztango Herrirak. Aldarrikapen hauek larunbatean Elizondoko plazan egingen dira 11:30etatik aitzinera eta hauekin bat egiteko gonbidapena luzatu diete herritar gutzietei.

Mendi martxa

Zilbeti Bizirik lelopean mendi martxa antolatu du Monte Alduide



ARGAZKIA: BAZTANGO HERRIRIA

Larunbatean plazara ateratzeko egin die Herrira mugimenduak herritarrei.



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburuaren Astea eta Aste Kulturala Baztan Ikastolan

Apiril hondarrean Liburuaren Astea eta Aste Kulturala ospatu zituzten Baztan Ikastolan eta gisa aunitzetako ekitaldiak izan zituzten: Juul kanpainaren hauteskuendak egin zituzten, *Asiakleta* eleberriaz aritu ziren Amaia Elozegi idazlearekin – argazkian 5. mailako ikasleekin –, ipuin kontalarien saioak ere izan zituzten, Nafarroako Konkistaren gaia ere modu aunitzetara landu zuten: abestia ikasiz, Amairuko gaztelura eta herrira bisita eginez, konkistaren liburuxka osatuz, antzerkia eginez, idazketa tailerra eginez... Modu dibertigarrian ongi pasatzeko aukera izan zuten gaztetxoek.

Koordinadorak ekainaren 2rako. Magna enpresak harrobi proiektua martxan du inguru horretan eta ibilaldi honekin

zonaldea eta proiektua ezagutarazi nahi dituzte antolatzaileek. Hiru orduko ibilbide zirkularra izanen da eta 10:00etan at-

rako da Zilbetitik. 14:00etan bazkari autogestionatua egingen da eta Koordinadorak edaria eta kafea eskainiko ditu.

ANTXITONIA
Real Estate

Agenda de actividades de ocio y cultura
del Ayuntamiento de Baztan

Barrion 14rako 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853
baztan@antxitonia.com • www.antxitonia.com

FOTO MEDIA BIZI DO

ttipi baztana

% 10 eko
DESKONTUA
kopia digitalarekin

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Barría arrosi taldea

SOULE

Itzula arrosa
Itzula arrosa
Itzula arrosa
Itzula arrosa

BAZTAN

NEGUKO KANPAINA → BALORAZIOA

Sute denboraldiaren balantze gazi-goza egin du Udalak

Jendeak baimenik gabe erretzen segitzen du

TIPI-TTAPA

Neguko sute denboraldia akitu den honetan, Baztanen balantze gazi-goza egin du Jon Elizetxe ingurumen zinegotziak. Alde batetik, nekazarien partehartzea inoiz baino haundiagoa izan dela adierazi du, baina bertze aldetik, baimenik gabe ere su gehiago piztu direla.

EPRIF taldearen, basozainen, Oronozko suhiltzaileen eta nekazarien laguntzarekin 274,74 Hektarea erre dira, 31 erreketetan, eta «datu historikoa» dela oroitarazi du zinegotziak. Gaineratu duenez, «aurten go helburuetako bat nekazari gehiagoren partehartzea zen, eta 300 pertsona baino gehiagok parte hartu izana datu pozgarria da, iazko 184ko zifra erraz gaindituz». Bertzalde, aurten nekazariak bere kabuz 37 erreketak egin dituzte 125,6 Hektarea errez.


Baina, tamalez, baimenik gabeko suak ere izan dira, iaz baino 13 gehiago. Guztira 96,65 Hektarea erre dira baimenik gabe, horietako 72,25 larreak izan dira eta ez da landaririk ezta bertzelako kalte aipagarrikerik ere izan. Bere kabuz sortutako arboldi berri batzuk ere erre dira, 12 guztira, 24,4 Hektareako eremuan.

Laburbilduz, aurten go denboraldiak bi alderdi izan dituela aipatu du Elizetxek, «bat arras positiboa, nekazarien partehartzea hobetu delako eta EPRIF eta suhiltzaileek egindako lana eta lanerako eskaini duten borondatea izugarria izan delako. 400,34 Hektarea baimenarekin erre izana datu historikoa da». Alderdi negatiboari dagokionez, zera aipatu du: «oraindik badago jendea baimenik gabe erretzen segitzen duena, iaz baino hiru aldiz sute gehiago erretako partzeleki dagokionez, eta lau aldiz gehiago erretako arboldia izan delako».

NaBairen oharra

NaBai 2011 Baztango NaBairen babes taldeak Udala Gobernu Taldea osatzen duten Bildu eta Ezkerraren kudeaketa «kaxkarra» salatu du eta Nafarroako Gobernuak onartu eta diruz lagundutako proiektuen inbertsioak galdu dituela jakinarazi du.

Beraien hitzetan, «Nafarroako Toki Azpiegitura planean onartuak zeuden eta dirulaguntzak hitzartuak zituzten bi proiekturi uko egin diote Bildu eta Ezkerrak: Zigako hilerriaren handitze lanak eta Almandozko zeharbidearen hobekuntza». Lan hauek egiteko Gobernuak eta lehengo legegaldiko Udalak ofizialki hitzarmena sinatua zutela eta dirulaguntza bazezela aipatu du NaBaik. Zehazki, lanen aurrekontua 916.765 eurokoa zen,



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Oronozko larrialdi puntua kolokan

Nafarroako Gobernuak osasun eredia aldatzeko abian paratua duen erreformak kezka eragin du. Apiril hondarrean, Baztan, Agoitz eta Altsasuko alkateek, aldaketa baino gehiago murrizketa dela adierazi zuten prentsaurrekoan, eta herritarrek duten zerbitzuari eraginen diola. Eta Baztango Osasun Etxeko langileek horixe izan zuten hizpide maiatzeko Batzar Nagusiaren bilkuran –argazkia–. Azaldu zuten, «orain urte batzuk, Gobernuak Baztanen larrialdi puntuak murrizteko zituen asmoak berreskuratu ditu, eta krisia aitzakiatzat hartuta, Oronozko larrialdi puntua desagertarazi nahi du». Baztanek 8.000 biztanle eta 374 km² ditu, Nafarroako udalerririk haundiena da, eta duen biztanleriaren sakabanaketarekin, 15:00etatik 08:00etara mediku eta erizain bana utzi nahi ditu larrialdietarako Elizondoko osasun zentroan. Oronozko osasun etxea, «leku estrategikoan» dagoela aipatu zuten osasun zentroko langileek, eta «arras beharrezko puntua dela, aldi berean, Male-rrekarako zenbait aldiz laguntza ematen diolako».



ARGAZKIA: ELURRE

Xaboi ikastaroaren arrakasta

Denbora laburrean bigarren aldiz, xaboa egiteko ikastaroa egin dute Amaiurren, Otsondo barride elkarteak antolatuta. Autogestioa eta ekologiaren aldetik, xaboa produktu kimikorik gabe eta erabilpen aunitzetarako nola egin ikasi zuten bildutakoek.

Gobernuak, 714.790 euro hitzemanak zituen.

NaBai 2011k dioenez, proiektuak «ez dira Bildu eta Ezkerraren gustuko» eta zergatik galdetu du: «NaBairen lehengo Udala Gobernu Taldeak kudeatu eta konprometitu zituelako edo herri horietako alkateak ez direlako beraien sokakoak?»

Gobernu Taldeak «inbertsioak logika bati segituz berrantolatu» direla jakinarazi zuen bere garaian eta NaBai 2011k dio «berrantolaketa ho-

ri esker Baztan deusgabe gelditu dela, bi proiektu horiendako dirulaguntza galdu baitu. Gobernuak arras kontent egonen da erabaki honekin konprometituak eta sinatuak zituen milioi eta erdi euro baino gehiago aurreztuko dituelako, Bildu eta Ezkerraren disparteari esker».

Oharrean erran duenez, «lehengo legegaldian Bilduk eta babesa ematen dioten herrietako alkateek gogor eraso zuten NaBairen Udala

de, Gobernuak Udalaren proiektu batzuk ez zituen onartzen. Orduan, gaur egun zinegotzi direnetako batzuk ezinezkoak ziren gauzak eskatzen zituzten, eta Udalaren arazoa zela zioten». Talde honen ustez, «protesta egitea eta bertzeen lana zango trabatzea erraza da, baina gobernatzea zaila da» eta hortaz, Zigako hilerriaren eta Almandozko zeharbidearen aferean «solas gutiago eta zerbait egitea» eskatu du.

ARKUPEAK → HURRENGO IRTEERAK

Arkupeak-eko 54 bazkide Benidormen izanen dira maiatzaren 26ra arte

Maiatzaren
30ean Larunera
eta Sarara
joanen dira

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteko jubilatuek ez dute etenik, eta bidaiak eta bertzelako jarduerak bat beztearen gibeletik datoz. Astelehenean, adibidez, maiatzak 14, 54 bazkidek Benidormerako bidet hartu zuten eta maiatzaren 26ra arte han ibiliko dira.

Eta handik etorri orduko, maiatzaren 30ean Larunera ateraldia antolatuko du Arkupeak-ek. Ondotik Sarako lezeak bisitatuko dituzte eta gero Zugarramurdin elkartuko dira bazkaltzeko eta Joxeanjelen musikarekin gorputza astintzeko. Nahi duenak Sorginen Museoa eta lezeak bisitatu ahal izanen ditu.

LAUGARREN BOLETINA

TTIPI-TTAPA hau argitaratzerako, seguruenik hurrengo ateraldien berri emanen duen boletina



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

la 200 lagun Andaluziako bidaiari

Joan den apirilaren 17an 196 erretiratut Andaluziarako bidea hartu zuten Cadiz, Herri Txuriak eta Sevillako feria ikusteko asmoz. Hainbertze bidaiari izanda, bi hoteletan egin zuten egonaldia eta batekoak bertzeakoak baino gusturago gelditu ziren. Baina orokorrean, bidaiari ederki ateratu zen, Sevillako bazkaria kenduta, nahiko pobrea izan zelako. Baina alde positiboak aunitz izan ziren, Herri Txurietan barna egindako ibilbidea bera, edota Sevillako feria ere bai. Emakumeen janzkerak eta hango dantzak arreta piztu zioten bati baino gehiagori eta hirian barna monumentuak ikusteko egindako itzulirekin ere gustura gelditu ziren bidaiariak.

na bazkideen eskuetan egonen da. Mendizaleentzako Aragoiko piri-

nioetara irteera, Aralarra, Bilbora, Parisera, Arantzazura edo Lezora

joatea aurreikusi dute. Bertzelako informazio osagarria ere ekarriko du.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Lurdesera erromesaldia

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere Lurdesera erromesaldia egin dute Arkupeak-eko lagunek. 106 erromes izan ziren maiatzaren 2an senitarteko eta gaixoei laguntzera joandakoak. Bidean, batek istripua izan zuen, baina anbulantziako arduraduneri esker arazoa konpondu zen. Behin Lurdesera ailegatuta, On Mikel mezaren ondotik, haitzulo inguruetan ibiltzeko eta bazkaltzeko aukera izan zuten erromesek. Aipatzekoa da egun horretako eguraldia ere, ekaitz ederra bota baitzuen. Arratsaldean, hainbat ekitaldi erlijiosoren ondotik, etxerako bidea hartu zuten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ikastaroak eta hitzaldiak

Dagoeneko hiru dira martxan dauden ikastaroak. Horietako bat margogintza eta marrazketaren inguruan, bertzea frantsesekoa bi taldeekin eta hirugarrena informatikakoa Donezteben, hau ere bi taldetan banatuta. Hirugarren taldea maiatzaren 28an hasiko da Elizondoko Institutuan. Biharamunean, hilak 29, hirugarren aldiz *jubilazio eta pensioen gaur egungo egoera eta etorkizuna* izanen dute hizpide Leitzañan, 19:00etatik aitzinera udaletxean. Julian Sainz Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Zuzendaria eta eta Francisco Calvo Informazio Zuzendariordea izanen dira hizlariak.

ZUGARRAMURDI

SORGINAK → SORGINEN HISTORIA, EUSKAL MITOLOGIA MODU DIBERTIGARRIAN EZAGUTZEKO

Sorginen kontuak hobeki ulertzeko haurrendako tailerrak prestatu dituzte

Eskoletako haurrei tailerrak eskaintzen hasi dira

Koro eta Margari

Sorginen historia, euskal mitologia, antzinako bizimodu eta ohiturak, eta sendabelarren erabilerak Sorginen Museoa ageri diren zenbait gai dira, baina haur ttikienek ulertu ezin dituztenez, bartz tailer diferentak prestatu dituzte beraiantzat.

Lesakako Irain Eskola Publikoko 30 ikasle izan ziren lehendabizikoak esperientzia berri hau probatzen. Herriko karriketatik, Sorginen Museotik eta Lezetik *Sorgina salbatuko du-gu!* ginkana egin zuten: sorgin batek Barrene txeko Graxianaren arima salbatzeko frogak azaldu zizkien, adibidez, *telefono puskatuaren* frogak, haiek ere konprobatzeko informazioa aldatzen dela pertsona batetik bertze batera pa-

satzen denean. Horrela ez da harrizkoa sorginei buruz hainbetez gaizki ulertze eta gezur sortzea eta auzokideen artean salatzea. Eguzki-lore bat margotzea edo lezean edabe magiko bat prestatzeko osagaiak lortzea izan ziren haur lesakarendako antolatutako bertze jokak.

Ondotik Berako Ricardo Baroja eskolako ikasle ttikiak izan ziren euskal mitologiari buruzko tailer berria ezagutu zutenak. Bi sorginez lagunduta, euskal mitologiako pertsonaia nagusiak identifikatu zituzten, euren ontasuna edo gaiztotasuna baloratu, eta finitzeko konjuro gisa joko bat egin zuten lezean, izaki hauen mesedea erakartzeko.

Horietaz gain, bertze tailer hauek ere prest daude edozein eskoletako haurrek gozatzen: gomaevarekin prestatutako panpinen bitartez Zugarramurdiko sorginen historia landu; «fama txarra» duten ani-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO Lesakako Irain eskolako ikasleak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO Berako Ricardo Baroja eskolako ikasleak.

mallei buruz hausnarketa (apoa edo saguzar harraren fama txarra, adibidez); elikadura osasuntsua, garaiak eta sendagai naturalaren balioa ezagutu.

Zonaldeko eskolek tailerren bat egin nahi baldin badute, informazioa jasotzen ahal dute 948 599004 telefonoan edo info@zugarramurdi.es helbidean.

Informatika ikastaroa

Informatikan lehenbiziko pausuak ematen hasteko ikastaro bat emanen da bigarren aldiz Sorginen Museoa. Aitzineko ikastaroan gehieneko plaza kopurua zela eta gogoarekin gelditu zirenei bertze aukera bat emateko eskaintzea erabaki da.

IZEN EMATEA

Maiatzaren 15 eta 30 bitartean, 09:30etik 12:00etara, eskualdeko emakumei bereziki zuzendutako ikastaroa eskaintzen ari da, eta informazioa eskatzeko, edo izena emateko info@zugarramurdi.es e-postaren bidez egiten ahal da, edo bertzela, 948 599004 telefonora deituz.

MONTXO OSTATUA
ТАВІКО-ДЕНДА

Tutur karriketatik | Gijónetik | Páramok | Mendok ikarizkiak
Egunerik 09:00etatik 02:30era - Zuzendaritza 7 km bitar
ANIZAN-BITARRA - UNGAZURI | 948 599 039

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapa

EGIN ZAITEZ GURELAGUN

SANSINENA TAILERRA

%5^{er} DESKONTUA
olio aldaketotan

ttipi tratatza

OSPAKIZUNAK → IKASTOLAREN BESTA

Egun osoko besta antolatu du Olhain Ikastolak maiatzaren 27rako

Bazkarirako txartelak aitzinetik 20 eurotan eros daitezke

Joana GUERENDIAIN

Urtero bezala, mendekoste asteburuan, Olhain ikastolak bere besta antolatu du. Aurten, beraz, maiatzaren 27an eroriko da. Besta goizeko 11etan hasiko da haurren ikusgarriarekin, eta ondotik sagarnote-giko bazkaria egingen da, eta bertsuak entzuteko aukera ere izanen da. Haurrentzako joko puzgarriak izanen dira frontoian.

Bazkarirako txartelak aitzinetik salgai izanen dira 20 eurotan, usaia tokietan.

Kontzertua elizan

Maiatzaren 18an, ostiralean, gaueko 9etan, elizan kontzertu bat izanen da. Auxerroiseko koroak emanen du, 40 gizon ez osatua den Yonne departamenduko abesbatzak, hain zuzen. Euskal kantak egingen dituzte eta sartzea urri-rik izanen da.

Moto triala

Maiatzaren 20an, igandearekin, moto trial lasterketa bat antolatu izan da. Duela hemezortzi urtetik *Le trial club Basquek* antolatzen du Xabaloko gunean. Ibilbidea hamabi partetan banatu izanen da eta bortz zailtasun maila izanen dira.

Trial goizeko 10etan hasiko da eta egun osoan iraunen du.




ARGAZKIAK: JEAN POUYET

Pleka trinketeko txapelketa

Apirilaren 27 eta 28an Pleka trinketeko pala txapelketaren finalak jokatu ziren. Abenduan hasi zen txapelketa eta Aña eta Iñakiri esker baldintza ezin hobeagoetan joan da. Hauek dira emaitzak: 3. mailan, Michel Darrichon eta Eric Garbisu 50 - Bixente Larretxe eta Anthony Gomez 41; 2. B mailan Alain eta Battit Berasategi 50 - Christophe Etxeberri eta Fabien Etxeberria 40; 2. A mailan Henri Larretxe eta Stéphane Darribat 50 - Eric Lafitte eta Christian Lasseugette 36; 1. mailan Jean Pierre Sallaberri eta Olivier Saliege 50 eta Pettan Dupérou eta Patrick Ladebat 46.

Sarkozy nagusi Saran

Lehendakaritzako hauteskunderen bigarren itzulirako jende frango joan zen bozkatzerat, 1570 pertsona, hain zuzen ere. %51,05ek Sarkozyri eman zion boza eta %48,95ek Hollanderi.



SENPERE

LABORANTZA → DIRULAGUNTZA GEHIAGO HARTUKO DIRA

Laborariak pozik daude eremu gehienak mendi gune izendatu baitira

5 811 mendi gune sailkatu dituzte, Senpereko eremuen %90

Franck DOLOSOR

Senpereko eremuen %90 mendi gune izendatu ditu berriki Frantziako Gobernuak eta horrek poztu ditu herriko hauteskiak, eta hemendik goiti laguntza haundiagoak eskuratuko dituzten laborariak. Gure 6 500 hektareetako 5 811 mendi gune sailkatu dituzte Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkartearen eta Bruno Le Maire orain arte laborantza ministroaren laguntzari esker.

Orain arte, herri osoa mendi gune izendatzea galdetzen zen, baina ezezkoen aitzinean aldi huntan, Urdazuri ibaia- ren hurbileko toki zelaie- nak bazterrean utzi dituzte eta alde malkartsue- nak baizik ez dituzte kon- tuan hartu izendapena galdetzeko, eta azke- nean erdiesteko.

Dominique Idiart au- zapezordeak dio «entse- gu frango egin zela, as- paldiko galdea zela, inguruetako herri guztiek izendapen hori baitute aspalditik». Mixel Bero- koirigoin EHLG elkarte- ko buruzagiaren errane-

LABORARIK POZIK

«Esperantza galtzen hasiak ginen eta guretzat izigarri berri ona da, toki tzarrak eta patarrak baitira Senperen»

Théodore LEIZAGOIEN

Laborari saratar senperrarra

tan, senperraren eskubi- dea zen laguntza hau lor- tzea: «Mendi laborantza gehiago gostatzen da tresna egokiak behar bai- tira, baina gero toki ze- laietan egiten diren ekoiz- penekin lehiatzen da, be- raz, gauza ona da lagun- tza gehiago izatea». Théodore Leizagoien la- borari saratar-senperra- raren arabera, «esperan- tza galtzen hasiak ginen eta guretzat izigarri ber- ri ona dela toki tzarrak eta patarrak baitira Sen- peren». Bere semeak etxaldearen segida har- tuko du laster eta men- di gune izendapenak, eta horrek ekartzen dituen laguntzek, dena aldatu- ko omen dute biharko la- borari gazteentzat.

Jaunartzea

Maiatzaren 17an le- hen jaunartzea ospatu- ko da; sendotza hiru egun geroago; bigarren jaunartzea maiatzaren 27an eta Besta Berri ekainaren 10ean.



ARGAZKIA: KONTSEILUA

Herriko izen ofiziala Senpere izan dadin izenpetze bilketa

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustatuta, badira urte batzuk Senperen *Bai Euskarari Akordioa* eta *Ziurtagiria* garatu zirela. Geroztik, euskara egunerokota- sunean gehiago ikusi eta entzuteko neurri zehatzak hartu dituzte hainbat eragilek. Orain, ordea, herriko elkarte eta norbanekoez talde bat osatu dute eta erronka berria dute eskuartean: herriaren izen ofiziala Senpere bilaka dadin izenpedura bil- keta antolatu dute. Maiatzaren 9an egindako agerraldian, Jean Bruno Etxeberri herritarrak adierazi zuenez, «euskarazko izena zuten auzo edo errekek frantsestu dituzte eta orain ez dute fitxik erran nahi». Euskarazko izenek eta euskarak herrita- rrentzat duten garrantzia aldarrikatzeko herriko izenari lehentasuna eman behar zaiola uste dute: «gure herrian euskaraz bizi nahi dugu, gure herria Senpere dei- tzen da, beraz, galdegiten diogu Herriko Etxeari euskarazko izena bilaka dadin herriaren izen ofiziala». Herriaren armarririk euskarazko hitzez jantziak diren bezala, *bortiz eta on*, herriaren izena Senpere izatea nahi dute eta «ziur» dira egitasmoak arrakasta ukanen duela. Izenpedurak biltzeko bloga: <http://senpere.wordpress.com/>.


Lehen aldiz ezkerra nagusi

Frantzia osoan bezala, gurean ere François Hollande Errepublikako pre- sident sozialista izan zen hautagai bozkatuena joan den maiatzaren 6ko bigarren itzulian, bozen %52,12re- kin. Gainerat, Hollandek alde haundiagoa aterazio Nicolas Sarkozyri gure he- rrian Frantzia osoan bai- no. Senpere eskuin zen- trokoa izan da betidanik eta lehen aldia da ezkerra nagusitzen dela hautes- kunde presidentzialetan.

Ipar Euskal Herri osoa bezala, gure herria ere ezkererat biratzen ari da pixkanaka pixkanaka. 2007an Ségo- lène Royal sozialistak 1 493 boz bil- du zituen (%47,6) Sarkozyren pare- an (1643 boz, %52,39), eta aurten

sozialisten emaitzak hobetu ditu Hollandek: 1 754 boz, %52,12. Ni- colas Sarkozy doi bat apaldu da, 1 611 bozekin, %47,88. Aipagarria da tendentzia bera gertatu dela lehen aldikoz Senperesartua den diputatua hautatzeko seigarren hautes barruti- an ere, Michèle Alliot Ma- rieren lurraldean. Hollan- dek bozen %51,5 izan zu- en eta Sarkozyk %48,4. Dena den, hauteskunde guztiak desberdinak dira

eta beraz, ez da segur tendentzia ho- rrek segituko duela ekainaren 10 eta 17ko hauteskunde legegileetan. Bai- na aipagarria da ezkerak egin duen urratsa orain arte eskuina hain indar- tsua zen tokietan ere.



tipi-tapa
 ebearen bidaltzea nahi baduzu,
 deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58
 www.tipi-tapa.com



SORTZEAK

Iker Jose Elizetxe Segales, Bolivia-koa, apirilaren 6an.
Maialen Barranco Estupiñan, Etxalarkoa, apirilaren 23an.
Maialen Juanotena Iribarren, Doneztebekoa, maiatzaren 3an.
Melul Lacave Léo, Sarakoa, apirilaren 20an.
Antton Lamothe, Sarakoa, apirilaren 20an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Imanol Oiartzabal Uranga eta **Enara Larralde Urkijo**, Berakoa eta Lesakakoa, maiatzaren 3an Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

M^a Luisa Oiartzabal Telletxea, Doneztebekoa, apirilaren 17an, 52 urte.
Ambrosia Oronoz Zabaleta, Leitza-koa, apirilaren 21ean, 94 urte.
Juan Bautista Mariezkurrena Senosiain, Amaiurkoa, apirilaren 25ean, 87 urte.
Francisca Irigoien Urrutia, Erratzukoa, apirilaren 25ean, 96 urte.
Maria Dolores Aramendi Etxandi, Elizondokoa, apirilaren 26an, 82 urte.
Cosme Sanz Ruiz, Elbetekoa, apirilaren 22an, 77 urte.
Maria Jesus Lidia Belzunegi Santos, Elizondo-Irurita, apirilaren 29an.
Leon Goienetxe Danboriena, Etxalarkoa, apirilaren 29an, 86 urte.
Maria Jesus Inda Maritorea, Amaiurkoa, maiatzaren 3an, 89 urte.
Felix Fernandez Jardon, Leitzakoa, maiatzaren 5ean, 76 urte.
Joseph Jean Leizagoien, Sarakoa, maiatzaren 5ean, 88 urte.



Severiano MITXELENA JORAJURIA

Sunbilla, 2011ko maiatzaren 18an
I. URTEURRENA

*Gure artetik joan zirela,
 maiatzaren 18an beteko da urtea.
 Zure gorputza sartu zuten hilobira,
 eta arima igo zen zeruko gurdira.
 Gaur handikan bazaude lurrera begira,
 gure zorion denak zuretzako dira.*

EMAZTEA, ALABA, SENIDEAK ETA FAMILIA

Bere urteurreneko meza maiatzaren 20an eginen da, Sunbillako Elizan, 11:00etan.

PILOTA → BIGARREN MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA

Jon Jaunarenak profesionaletako bere lehendabiziko txapela jantzi du

Ceciliorekin bikotea osatuz, 22-14 irabazi diote Olazabal eta Larrinagari

TTIPI-TTAPA | LEITZALDEA

Leitza ala Areso. Jon Jaunarena ala Mikel Olazabal. Hurbileko bi herri eta bi pilotari gazte aurrez aurre, baina txapel bakarria zegoen joan, eta azkenean, Leitzara joan da. Jon Jaunarenak irabazi du Eskuz Binakako bigarren mailako pilota txapelketa Cecilio lagun due-la, eta honenbestez, profesionaletako bere lehendabiziko txapela



ARGAZKIA: NOTICIAS

Jon Jaunarena eta Mikel Olazabal, bigarren mailako binakako pilota txapelketako eskualdeko protagonistak.

lortu du, 2010eko abenduan debutatu zuenetik

hamasei hilabetera. Apirilaren 28an jokatu

zen bigarren mailako finala Iruñeko Labrit pi-

lotalekuan eta txapelketan hiru alditan aurrez aurre izan diren Mikel Olazabal aresoarra eta Larrinaga bizkaitarra izan zituzten aurkari Jaunarenak eta Cecilio. Leitzarra eta errioxarra ziren faboritoak, txapelketako aurreko bi partidetan ere irabazi egin zituzten, eta finalan ere ez zuten hutsik egin, 22-14ko markagailuarekin irabazi baitzuten. Partida hasiera nahiko orekatua izan bazen ere, gerora, leitzarra eta errioxarra gailendu ziren.

Txapela familiar, laguneri eta neska-lagunari eskainiz Jaunarenak.

SOKATIRA → LAUKO TXAPELKETA

Nafarroako Txapelketako jardunaldia jokatuko da larunbat honetan Amaiurren

Amaiurko gizonen bi talde parte hartzen ari dira

kumezkoen 260 kiloak. Tartean badira eskualdeko taldeak ere, gizonen bi mailatan ari diren Amaiurko Amaiureta A.S.T. taldeak, hain zuzen.

Dagoeneko bi jardunaldi jokatuko dira: maiatzaren 5ean Iruñean eta 13an Etxarri Aranatzan. Eta larunbat honetan, maiatzak 19, Amaiurrek hartuko du lekuko eta 18:00etatik aitzinera, gizonen 300 kiloko lehendabiziko jardunaldia, kadeteen hirugarren jardunaldia eta emakumez-

koen bigarren saioa jokatuko dira. Maiatzaren 27an Aritz bailaran (Betelun edo Atallun) eginen den jardunaldiarekin bukatuko da aurtengo Lauko Sokatira Txapelketa.

Iparraldeko Joko Torneoa

Ortziral honetan, hilak 18, bukatuko da Iparraldeko Joko Torneoan izena emateko epea. Interesatuak Nafarroako Herri Kirol Federaziora deitu (948 450900) edo idatzi behar dute (info@herrikirolaknafarroa.org)



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amaiurrek etxean jokatuko du larunbat honetan.

TTIPI-TTAPA | AMAIUR

Abian da Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketa, eta aldizkari hau argitaratzerako zenbait kategoriatako txapela ere erabakia izanen da.

Lau kategoriatan banatuta ari da jokatzen txapelketa, gizonen 320 eta 300 kiloak, kadeteen 290 kiloak eta emakumez-

Guztira hiru jardunaldi jokatuko dira liga sistema erabiliz. Oraingoan, bi dira zehaztuak dauden jardunaldiak, ekainaren 16an Iruñeko zentralan jokatuko de-

na eta ekainaren 24an Uharteko plazan eginen dena.

Probak banakakoak izanen dira eta modalitate bat baino gehiagotan apunta daiteke kirolaria.

MENDIA → MAIATZAREN 27AN

Amaiurren hasi eta akituko da Baztango XIX. Mendi Itzulia

Internetez izena eman daiteke maiatzaren 25era arte

TTIPI-TTAPA | AMAIUR

Aurten XIX. aldiz egingen den Baztango Mendi Itzulia Amaiurren hasi eta akituko da. Maiatzaren 27an egin du hitzordua Baztango Mendigoizaleak elkarteak eta egun horretan bilizen diren mendizaleek 38 kilometro eta 2.050 metroko desnibela duen ibilaldia egiteko aukera izanen dute.

Amiurren (300 metro) hasiko da itzulia eta handik Alzolarako (608



ARGAZKIA: BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

Baztango aurtengo mendi itzuliaren ibilbidea.

metro) bidea hartuko dute mendizaleek. Ibilbideko lehenabiziko kontrol-puntua Orabideko errekan egingen da

(144 metro). Gero Azkar mendia igo beharko dute (428 metro) eta hurrengo kontrola Ilardoitzen (141 metro) izanen

dute mendizaleek. Arranomendi (769 metro) igotzea aukerakoa izanen da eta handik aitzinerago eginez, Muge-

ko lepoan (675 metro) hirugarren kontrol-puntua egonen da. Gero, Gaztelurako (368 metro) bidea hartu beharko dute mendizaleek eta handik herrira jaitziko dira.

IZEN-EMATEA

Mendi ibilaldiaren eguna baino lehen, Internetez izena emateko aukera izanen da www.mendizmendi.com web orrian. Maiatzaren 25era arte egin daiteke eta zortzi euro ordainduta. Egunean berean, berriz, 06:15tik aitzinera ere ematen ahalko da izena, hamar eurotan.

Ibilbidea 07:00etatik 07:30era abiatuko da.

MOTORRA → LASTERKETA

Javier Prieto motor gidari beratarra Alcañiz-Motorland zirkuituan nagusi

Joan den urtean hasi zen motorren munduan

TTIPI-TTAPA | BERA

Javier Prieto Martinez motor gidari beratarrek garaipena lortu zuen apirilko hondar asteburuan Alcañizko zirkuituan, Iparraldeko zonako puntuagarria zen proban, mila zenti-

metro kubikoko kategorian. Honela, hiru proben ondoren, lidergoa ere hartu du ezustean.

Iaz hasi zen Prieto motorren munduan, eta junior-amateur kategorian kompetitzen hasi zen, Asturiastik Kataluniarainoko pilotuak hartzen dituen Iparraldeko zonako txapelketan. Nafarroako Urantzian (Los Arcos) eta Motorland-Alcañizen jokatzeko dira lasterketak. Joan den



UTZITAKO ARGAZKIA

Javier Prieto beratarra podiumaren koxkarik gorenean.

urteko emaitzak harrigarriak izan ziren, aldi guztietan podiumera igotzea lortu baitzuen, hiru aldiz bigarren eta bitan hirugarren sailkatuz. Gisa honetara, lehenbiziko proban parte hartzerik izan ez bazuen ere, meritu handiko hirugarren postuan bukatu zuen.

Aurtengo txapelketa serioago hartu du eta maila handiagoko pilotoen aurka ari da milacoko kategorian. Denboraldi honetan hiru lasterketan hartu du parte: Albaceten bigarren izan zen, hirugarren Los Arcosen eta Alcañizen lehenbizikoa. Kategoriariko liderra da orain.

PILOTA

Bera, Leitza eta Doneztebe Herriarteko Txapelketan

TTIPI-TTAPA

Joan den asteburuan abiatu zen Nafarroako Herriarteko eskuz binakako pilota txapelketa eta tartean dira Leitza, Doneztebe eta Bera. Hemendik aitzinera igandeetan liga faseko joaneko eta itzulerako partidak jokatu dituzte. Lehena zuzenean finalera pasako da eta ekainaren 30ean bigarren eta hirugarren sailkatuen arteko partida irabazten duenak lortuko du finalerako bertze txartela. Finala uztailean egingen da.

maiatzak 17-31

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Bestak



BERROETA | 2012.05.25-28

Berriz ere Patagoniatik Mendekoste bestetara

Aurten ere, ETB2ko *El conquistador del fin del mundo* saioko lehiakideak izanen dira. Xegone eta Koldo Pozuetaren arteko desafioa ere jokatu da.

Ospakizunak




LEITZA | 2012.05.26

Eskualdeko txistulariek Leitzaan dute hitzordua

Inguruko txistulariak Leitzaan bilduko dira aurten. Auzoz auzo kalejiran ibili ondotik Ingurutxoak joko dute plazan. Bazkalon doan segituko dute doinuekin.

Antzerkiak



BERA | 2012.05.19/22

Dejabu era Uhartean taldeen emanaldiak

Dejabu taldearen *Gure bide galduak* maiatzaren 19an Kultur Etxean eta Uhartean taldearen *Susanaren iraultza* hilaren 22an Beralandetan ikusgai.

Antzerkiak

BERA

Dejabu eta Uhartean taldeen emanaldiak

Maiatzaren 19an Dejabu taldearen *Gure bide galduak* antzezlanak ikusgai 22:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro.

Maiatzaren 22an Uhartean Antzerki Taldearen *Susanaren iraultza* antzezlanak Beralandetan, 19:00etan. Sarrera: 3 euro.

Solasaldiak

ELIZONDO

Berto-eskola eredu baten erakustaldia

Maiatzaren 25ean Berto-eskola eredu baten erakustaldia solasaldia eskainiko du Arkaitz Goikoetxeak 20:00etan Arizkunenean.

Ikastaroak

IRURITA

Baratzeko mamu tailerra haurrendako

Maiatzaren 26an haurrendako baratze mamu tailerrak eskainiko du Birzikatuz kolektiboak 10:30etik 13:00etara, Museo Etnografikoaren Lagunen elkarteak eta Baztango Udalak antolatua.

Lehiaketak

BORTZIRIAK

Baztan-Bidasoko XXV Bertsopaper lehiaketa

Maiatzaren 25ean bukatuko da Baztan-Bidasoaldeko XXV Bertsopaper lehiaketara lanak aurkezteko epea. Xehetasunak 10. or.

Zinema

DONEZTEBE

Zinemaren azken saioa

Maiatzaren 20an *El gato con botas* filma ikusgai izanen da 17:00etan eta *Fuga de*

Kontzertuak

SARA

Auxerrois-ko gizon korua elizan

Maiatzaren 18an kontzertua emanen du Auxerrois-ko gizon korua 21:00etan elizan.

ELIZONDO

Oihan Vega Lur-en

Maiatzaren 26an Oihan Vega izanen da Lur dantzalekuan, 01:00etatik aitzinera. Sarrera: 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte.

Ospakizunak

LEITZA

XXXV. Kultur Aroa

Maiatzaren 17tik 27ra hainbat ekitaldi antolatuta ditu Leitzako kultur taldeak. Xehetasunak 32. orrian.

ZUBIETA

Malerrekako Eguna

Maiatzaren 26an ospatuko da lehen aldiz. Xehetasunak 4. orrian.

SARA

Oihain ikastolaren besta

Maiatzaren 27an haurren ikusgarriak,

sagardotegiko bazkaria, bertsuak... Xehetasunak 41. orrian.

DONEZTEBE

Musika Eskolaren Eguna

Maiatzaren 27an bere eguna ospatuko du Agorreta Musika Eskolak. Xehetasunak 18. orrian.

LEITZA

Eskualdeko Txistulari Eguna

Maiatzaren 26an Txistulari Eguna ospatuko

da. Eguerdian Ingurutxoak ere dantzatuko da. Xehetasunak 32. orrian.

ELIZONDO

Museoen Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko Eguna dela-eta, Baztan Etnografia Museoaren sarrera doan.

Bestak

BERROETA

Mendekoste bestak Maiatzaren 25etik

28ra ospatuko dira Mendekoste bestak. Xehetasunak 36. orrian.

IRURITA

Salbatore bestak

Maiatzaren 16tik 20ra ospatuko dira Salbatore bestak. Xehetasunak 565. alean.

URDAZUBI

Salbatore bestak

Maiatzaren 16tik 20ra ospatuko dira Salbatore bestak. Xehetasunak 565. alean.

PROPOSAMENA

ZUBIETA

Malerrekako Eguna ospatuko da lehen aldiz

Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten 13 herriak elkartuko dira maiatzaren 26an Zubietan. Artisauek, dantzariak, bertsolariak, paella jatea, umeentzako tailerrak, mus txapelketaren finalak, aizkora apustua, berendua, joaldunak, lekukoa pasatzeko ekitaldia eta afaria eta gauerditik aurrera musika plazan izanen dira. Errota ere zabalik izanen da.



cerebros 2 filma
19:00etan. Mendaur
eta Erreka Guraso El-
karteek antolatua.

ARANTZA

**Bertsolari filma ikusgai
Zahar Txokon**

Maiatzaren 26an *Bertsolari* filma ikusgai izanen da 20:00etan Zahar Txokon. Sarrera: 3 euro helduek eta 14 urte behetikoeak euro 1.

Mendi ateraldiak

ARANTZA

**Arantzako Mendi
Itzulia**

Maiatzaren 20an Arantzako Itzulia antolatu du Ekaitza Elkar-teak. Xehetasunak 565. alean.

BAZTAN

**Baztango
Mendigoizaleak**

Maiatzaren 20an Arantzako Itzulira joanen dira Baztango Mendigoizaleak.

Maiatzaren 27an Baztango XIX. Mendi Itzulia eginen da.

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Maiatzaren 27an Gorbaiara ateraldia eginen du Ulibeltzak mendi taldeak (06:00).

BERA

Larun Ttiki taldea

Maiatzaren 27an larungo besta eginen du Larun ttiki mendi taldeak. Kotxez Lizuniagaraino (09:00).

ZUGARRAMURDI

Atxuria Mendi Taldea

Maiatzaren 27an Heleta-Baigura ibilbidea eginen du Atxuria Mendi Taldeak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Ni, Vera


ITXASO MARTIN

Elkar, 2012

Erotzeko zorian sentitzen da Martina, zer gertatzen zaion ez dakiela. Nahiz eta mutilak lagundu, nahiz eta –ahalegin handi bat eginda– psikologoarengana joan, amildegiaren ertzetik gero gertuago dago, eta zuloak bertara erakartzen duela nabari du.

Eromenaren inguruko istorio batekin ekin dio Itxaso Martin Zapirain kazetari eta idazleak (Donostia, 1981); lehen eleberria du ni, Vera. Bi emakume, Vera eta Martina, eromenaren zurrumbilo ikaragarrian harrapatuta, fobiaz eta beldurrez beteak, errealitatea eta fantasia ezberdintzeko gai ez direla. Lehen eta bigarren pertsonak erabili ditu Martinek, elkarrizketak bereizteko gidoirik gabe, eta protagonistak bere buruarekin dituen bakarriketak islatzeko tipografia ezberdinak tartekatuta. Egun, emakumea eta psikiatria gaiari buruzko doktorego tesia egiten ari da Itxaso Martin. Kazetari lanetan, irratian zein telebistan aritu da.

Musika




Pottoka & Eskortz

POTTOKA & ESKORTZ

ESTUDIOS MAV,
2012

Pantxo Etxebere *Pottoka* eta Mikel Mujika Jorajuria *Eskortz* musik-eroek osatzen dute Amairtik datorren bikote musikala hau; Pantxo, bakar-lari zein taldeka (Pottoka Band, Otsondo 602) urteetan eszenatikietan ibilitakoa; Mikel, aldiz, jende aitzinean hasi berria. Gitarra akustikoak, banjoa, armonika eta gure ahotsak tartekatuz folk-pop aireko kantuak dituzte sortzen zein plazaratzen, teknikoki baldarrak izanik ere, freskotasuna eta sinpletasuna dutelarik oinarri eta jomuga. Jorratutako gaiak dagokionez, esparrua zabala da: herriko eguneroko bizia, naturarekiko konexioa, kritika soziala edo kantu zaharren moldaketetan oinarritzen dira beraien letrak. Pottokak talde ezberdinekin batera diska pare bat kaleratuta eduki arren, bikote moduan orain atera dute lehenengoa Pottoka&Eskortz izenburupean. Bortz kantu bildu ditu: *Nafarroaren egune*, *San Jose Lorea*, *Langetuen filosofia*, *Bake pipa* eta *Mohawe Hotela*.

Internet




Etxalarko kultur ataria

**EKULTURATARIA.
BLOGSPOT.COM.ES**

Etxalarko hainbat kultur ekitaldiren berri ematen du webgune honek, *herritarrek eskuz esku kultur desafioan, elkarlanean* goiburupean. Herriko kultur taldeen eta eragileen cunea izan nahi duenez, guztientzat irekia da, eta beraz, edozer sartu nahi izanez gero, helbide hontara bidali dezakezue: *ekulturataria@gmail.com*. Blog-eko kide eginez gero, bertan azaltzen den informazioa jasoko dute interesatuek beraien posta elektronikoa. Eta kudeatzaileek diotenez, «komentarioak uzten badituzue, denon arteko elkarrizketan hobetuko dugu hobetu beharrekoa». Orrialde nagusian azken berriak ageri dira, baina Egutegia, Etxalar kantuz eta Etxalarko dantzariak ataletan ere bertze zenbait kontu ageri dira. Etxalarko xokoak, Ikus-entzuneakoak, kultur emaria eta bertze atal interesgarrietan ere klikatzeko modua eskaintzen du.

Nire aukera



Arkaitz VICENTE
Sunbillako basozaina

**«Mongoliara joan
nahi nuke, artzain
nomaden bizi
modua ezagutzera»**

Leitza eta Goizueta aldean basozain lanaz aparte, bere ametsa batez ardiak paratu ditu etxean gazte sunbildarrak. Hortaz, negu partean batez ere ez du orain asti handirik. Baina ahal duenean mendira ateratzea gustatzen zaio, «hemen inguruan edo Pirinioetan udan, Alpeetan ere izan naiz». Horretaz gain, Iparralde ere aunitz gustatzen zaio, baita «furgoneta hartu eta Picos de Europa aldera joatea». Hondartzari ere ez dio muzin egiten eta tarte-ka Mediterraneora eta «kasik udaro Landetara» eskapadaren bat egiten du. Mendia eta artzaintza, bere bifizioak uztartuz, Mongoliara joatea gustatuko litzaioke, «artzain nomaden bizimodua ezagutzera, baina guttienez 15-20 behar ditut horretarako». Internet-en sartzea ere gustatzen zaio, «informaturia egoteko» eta aspaldian joan ez bada ere, zinema gogoko du. Herri kirola ere aunitz maite du, «aizkora batez ere, baita sega ere eta bestetan zerbait armatzen dugu».

ETXEBIZITZAK**salgai**

BERA. Eztegaran pisua salgai. 4 logela, sukaldelantokia, 2 bainugela, ganbara eta kanpoko lorategia. Pisua 137 m² ditu eta ganbarak 30 m². ☎688 695812.

LESAKA. Herri erdian 66m²ko pisua salgai, 2. solairuan. 2 trasteleku, garajea eta igogailua. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

GOIZUETA. Herritik 300 metrora dagoen pisua salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldela eta bajera. Berogailuarekin. ☎699 695628.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

LESAKA. Laugarren pisu bat salgai. 3 logela. 120.000 euro. ☎607 446925.

LESAKA. Plaza Berrian bi pisuko etxea salgai. Solairu bakoitzean bi logela eta bainugela osoa. Baratzea eta 6m²ko balkoia. Eguzkitsua. ☎948 637840.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

DONEZTEBE. Zazpigarritze auzoan 100 m²ko pisua salgai, teilatupeko logelarekin. 3 logea, 2 bainugela, egongela eta

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

sukaldela. Mobleztatua dago eta bizitzera sartzeko prest. Hagitz prezio onean. ☎639 778851.

ELIZONDO. Maurizio eta Felix plazan Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai edo errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldela, egongela, trasteleku eta garaje plaza ditu. Eguzkitsua eta mobleztatua. Salmentako prezioa 21.500.000 pezeta. (129.217 euro) eta errentarako prezioa 350 euro. ☎616 510624 edo 948 580683.

ORONAZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trasteleku eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

ELIZONDO. Akullegi ka-

rrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

BERA. Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta egoera onean. ☎687 950371.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. 3 logela. Mobleztatua. ☎607 890923.

DONEZTEBE. 92-94m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldelagailuak. Gela guztiak kanpora ematen dute, eguzkitsua. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎699 798207.

IGANTZI. Pisu berria errentan emateko 400 eurotan edo salgai 180.000 eurotan, 2 logela, egongela, bainugela, berogailua, trasteleku (pisua saltzen bada) eta marra garajearen. Oso argitsua. ☎670 218613.

BERA. Estreintatu gabeko pisua errentan emateko. 2 logela, komuna dutzarekin, egongela, sukaldela eta horiez gain, 20 m²ko terraza. Dena altzari berrieekin. Herri sarreran dago, gasoldegitik 100 metrotara eta Behobiatik 10 minutura. ☎650 603871 / 650 064912.

ZERBITZUAK**zurginak****LANA****eskariak**

Gizon bat ostatuan barran, jangelan edo sukaldela

dari laguntzaile gisa lanean ariko litzateke. Edozein momentutan haste-ko prest. Esperientzia haundiarekin. ☎657 409499.

Esperientzia duen **neska euskaldunak** etxeak garbitzen edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎616 037637.

Esperientzia duen **emakumeak** etxeko lanak egiten edo adinekoak zaintzen lan eginen luke. ☎656 186447.

Neska saharar gazte batak **edozein adineko pertsona zaintzen** lana gustura eginen luke. ☎948 450056.

DONEZTEBE edo **INGURUAN** emakume euskaldunak ordu batzuek lan eginen luke garbiketaren edo haurrak zaintzen. ☎699 798207.

LANA**eskaintzak**

Etxalar Hotolean **sukaldaria** behar da udako sa-soirako. ☎948 635000.

Telekomunikazioko multinazional bat jende bila dabil. Zu bezalako jendea. Etorkizuneko irtenbideak interesgarriak. ☎626 981768.

Iruñeko **kirol arropa-denda** batean neska bat behar da. Interesa duenak bidali zuen curriculum argazki batekin, ondorengo helbidera. *Olatzpi, Baiona etorbidea 34, 31011 Iruñea.* ☎600 316934.

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(apirilaren 27tik maiatzaren 4ra bitarteko prezioak)

Zerrikumea
(19 kilo): 45,00 € (=)

Zerri gizona
1,294 € kiloan. (=)

Zerramak:
0,590€ Kg/bizirik. (=)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,31 (=)

1.koa 4,01 (=)

2.koa 3,77 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,37 (=)

1.koa 4,09 (=)

2.koa 3,99 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)

idixkoak 120,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberiak: 2,94/3,04

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,60/6,70

8-10 kilokoak: 5,20/5,40

LUR EREMUAK
salgai

BERA. Alkaiagan, 960m²ko lur eremu urbanizatua salgai. ☎948 630546.

MOTORRAK
salgai

Nissan Patrola salgai, prezio negoziagarria. ☎664 564572.



Suzuki GSXR 600 motorra salgai, 2004, egoera onean, katea berria, balaztak berriak, errodamentu berriak... Beti garajejan. 38.000 kilometro. 3600 euro negoziagarriak. ☎625 625068.



Ford Fiesta 1.4 gasolioa salgai, 80 CV. Oso egoera onean. ☎686998360.

Toyota Landcruiser 7 urtekoa, VX modeloa, modernoa, 150.000 kilometro, 163 CV, 3 atekoa, egoera onean salgai edo 5 ateko Toyota batengatik aldatzeko. ☎943 622860.

MOTORRAK
tailerrak



ANIMALIAK
salgai

Ahuntza enanoak salgai. ☎616 860060.

3 chihuahua txakurkume salgai. 300 euro. ☎636 089884.

DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta ha-

AVIA **DONEZTEBEKO**
GASOLINDEGIA

Zure kotxea garbitu!
Depositoa beteta kotxea garbitzeko libxa 1€
www.clubavia.es

GARBIKETA 1€

Depositoa betez gero

Luzua E. 49 • DONEZTEBE | 948 451 879 | www.clubavia.es

ritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



DONEZTEBE. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan

ikusgai, nahiz eta partikularrak izan. ☎646 799828.

Mendi bizikleta eta inpresora salgai. ☎627 601000.

Urari indarra emateko **bonba** salgai. Indar handikoa. Hagitz gutti erabilia. ☎606 681291.



Bazkaren autokargadorea (autocargador de forraje) salgai. Juscafresa.

maiatzeko zk. saritua
8.010

Zonaldeko produktuekin osatutako lotea

Barituak hilaren 31 baino lehen idetu behar du Bortziletako Hiri Hondakimen Markomunitatea

948 63 52 54

AJ15. 2.800 euro. ☎943 622860.

Ostalaritzarako altzariak salgai: eguneko 80 kilo izotz-zati (kubitoak) egiten dituen makina, basoen garbigailua ostalarako, ardo beltzarendako armairu-bodega eta hainbat neurritako botilategiak. ☎639 103305 (Jose Mari).

Mundu guztiak ikusteko!
Kantzeratuak | Herriko bustak | Txapelketak | Komertzioak

100 KARTEL 89€*
(A3 koloretan)

250 KARTEL 106€*
(A3 koloretan)

* BEZ gabe (%18).
Prezioan sartua dago diseinua, inprenta eta gortaina.
Epea 10 egun.
Prezio hauek bala data 2012ko maiatzaren 30era arte

ttipi-ttapa
Anduizeta, 12 ETXALAR | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



NIKO GARCIA ARANZADIK maiatzaren 20an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat ama, Juampa, Daniela eta Mugerdiko guzien partetik.



ZURIÑEK eta UXUEK maiatzaren 21 eta 27an urteak egingo dituzte. Zorionak etxeko guztien partetik eta egun on-ona pasa!



Urdazubiko **OIHAN eta SAIOA MUGIKA GARNICAK** maiatzaren 10ean eta 17an urteak beteko dituztelako, zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki aita eta amaren partetik.



Iturengo **PEIO MARIEZKURRENA ERREGERENAK** urtea bete du maiatzaren 5ean. Aunitz urtez! Elkarrekin ospatuko dugu zure eguna! Zure lagunen partetik muxu handi bat!



Iturengo **PEIO MARIEZKURRENA ERREGERENAK** urtea bete du maiatzaren 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.



Goizuetako **ITSASO APEZETXEA LEKUONA** gure pituxa tiki honek urtea bete du martxoaren 22an. Zorionak eta muxu asko asko, eta bat oso handia berexiki zure lehengusu Uxueren partetik.




MIRENEK apirilaren 29an urteak bete zituen. Zorionak bere lagun Josuren partetik.



Igantziko **ENERITZ IRATZOKI PORTU** gure etxeko sorgin honek 2 urte beteko ditu maiatzaren 16an. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat Igantzi eta Lesakako familia-aren partetik. Ongi pasa eguna!



Aunitz urtez! **XABI LEIZA MAEZTU** aranzarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 4an. Muxu handi bat ama, aita eta amatxien partetik eta bertze bat potolo-potoloa Maddiren partetik. Ongi pasa txipiron!



Iturengo **OIHAN MARTINEZ LEITZARI** zorionak zure 9. urtebetetze egunean, maiatzaren 23an. Berendu goxo-goxoa egin zure lagun guzkiekin eta merezi duzun bezain ongi pasa! Muxu haaaundi bat!



Berako **NAROA TELLETXEA eta GARAZI IRIARTEK** maiatzaren 17an eta 19an 6 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak gure etxeko bi printzesei! Muxu potolo bana Berako familia-aren partetik.



Iruritako **JULEN ELIZAINZIN ALZUARTEK** maiatzaren 11n 3 urte bete ditu. Zorionak familia guzti-aren partetik eta muxu handi bat Naroaren partetik.



IORITZ GOIENETXE MARITXALARREK 7 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Muxu potolo bat guraso eta anai-arrebaren partetik. Aupa Osasuna!



PEDRO NARBARTE Aranokoak eta **ROSARIO MARTIKORENA** Igoakoak 1962ko maiatzaren 12an Aieteko elizan eman zioten elkari baiezkoa. Eta orain, 50 urte geroago, maiatzaren 12an, seme-alaba eta biloben ondoan ederki ospatu zuten Usurbilgo Abexga jatexean. Zorionak eta jarraitu orain bezain bizkor.



Leitzako **MIKEL MARTINEZ-BARRANCO DUCEK** maiatzaren 29an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi bat familia osoaren partetik!



AMAIA ELORZ RIPAK maiatzaren 21ean urtea beteko du eta bere aitatzuk **JUAN** karrek ekainaren 9an urte batzuk gehiago! Merendu goxo batekin gustora ospatuko dugu. Muxu handi bana. Muak!



Sunbillako **PAUL IRAZOKI MANTEROLAK** maiatzaren 19an urteak beteko ditu. Zorionak aita etxekoan partetik eta muxu handi bat! Urdazubiko bestetan ospatuko dugu.



Maiatzaren 30ean urteak beteko ditu **Arantzako este muchacho**. Zenbat ez da dakigu, baina nahikoak para *llevar un capacho*. Aspaldi baitzen galza motzak kendu eta paratu zituela *bombacho*. Zorionak **PABLO**, ez tarta gehiegi jan hartuko duzu eta, *un empacho*.



EKIÑE eta JANIRE lesakarre 6 urte beteko dituzte maiatzaren 14 eta 20an. Muxu handi bat familia guztiaren partetik eta berexiki arreba June eta anaia Aimarren partetik. Ongi pasa eguna!

inprenta lanak egiten ditugu ideiatik hasi eta etxean izan arte

1.000 ale → 85€
kolorekin 4+4, 500 g 81,2 g/km²

8.000 ale → 160€
kolorekin 1+4, 500 g 81,2 g/km²

1.000 A4 → 86€
kolorekin 3+3, 500 g 81,2 g/km²

1.000 ale → 107€
kolorekin 1+1, 500 g 81,2 g/km²

Eskatu informazioa:
948 63 54 58
kulturuari@ttipi.net

↑ **Arantza Agertu Nahi Duzu?**
www.ttipi.net

Arantza Agertu Nahi Duzu?
www.ttipi.net

4 8



ttipi txartelarekin **beti irabazten da!**

deskontuak + zozketak + aldizkariak musu truk

Eskatu zurea: 948 63 54 58 telefonoz

565. ALEKO IRABAZLEAK

- * AQUARIUM 2 SARRERA
Elizabetze Teleskoa | BEINTZA-LAGAIEN
- * IBAIZABAL 2 LIBURU
Izartoko albarrak + Tonto eta ibazoa
Itziar Martinez De Irujo | ELIZONDO
- * LANKU LIBURUA + DVD
Galzagorrietan, Inaxiof Liburuak + DVDa
Patsa Irigo Ariztegi | BERA
- * ONINART KAMISETA
Dolores Otegiarek Etxarte | LESAKA
- * KATXIPORRETA ALDIZKARIA + KARTAK
Imo Aldizkaria + Familia Kartak Jokea
Josetxo Urdeta Arribilaga | ARANTZA
- * LESAKAKO UDAL IGERILEKUA
2 SARRERA
Malle Gomisari Fernandez | SUNBILLA

zozketak



KAMISETA BAT
Ondio ta punto
www.ondiotapunto.com

elkar



2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkarliburuak.com

deskontuak

SANSINENA TAILERRA
ELIZONDO | %5.000 aldizkarietan
Ostargi optika

nafarpress
ELIZONDO | %10 liburu eta ikas materialak,
liburuak eta besteak izan aurretik

bixkiak
KIKOI ETA MODAKO
ARIBO DENDA
LESAKA | %10eko deskontua

Beatriz
ELIZONDO | %10 ikaririk,
inartak eta liburuetan

ELBETE DO POSADA
ELBETE
%10, kartan, 20etik gorako gastuetan

ETXARTE bitxi-denda
LESAKA | %10eko deskontua



MARTIKO LOTEA
Martiko
www.martiko.com

AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiatik Aquarium-a
www.aquarium2.com

ttipi saskia

TTIPI-SASKIA

- LANKU ARGITALETXEA
(du ta galarrak DVD + MC Turrillu CD)
- KATXIPORRETA ARGITALETXEA
(Patsa Irigo Ariztegi + Ane Patsa Liburuak)



ttipi-ttapa

Anduizeta 12, 31760 ETXALAR
Tel. 948 635 456 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

MAIATZAK
26

BERRI TXARRAK

+TALDE GONBIDATUA

ONDOREN...

OIHAN VEGA

23:30 13€ Aurretik 17€ Bertan

Salmerita puntuak: Antxitonea eta Txokoto (Elizondo) _ El Infiernito (Iruña) _ Atxaspi (Lesaka) _ Lorentxo (Olabe)

EKAINAK
2

ZEZEN MEKANIKOA + LURDJOTAK

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

EKAINAK
9

BONGO BOTRAKO

00:00 10€ Aurretik 12€ Bertan

Salmerita puntuak: Antxitonea eta Txokoto (Elizondo) _ El Infiernito (Iruña) _ Atxaspi (Lesaka) _ Lorentxo (Olabe)

EKAINAK
2

TIRRI&TERY

I ♥ THIS SHIT

DENBORALDIAREN BUKAERA

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



garagardotegia

Destinatariak: pertsona guztiak
Lur Bordak: Txokoto, Antxitonea, El Infiernito, Atxaspi, Lorentxo